

# Armanak Uskara

edo



## Ziberouko Egunaria

1892 betharras ourtheko

Jinkoua eta Herria !

Zuhurtarzuna eta lana !

Eta bizi bethi Uskalduna !

Iao ! Iao !

I-a-a-a-a-o-o-o-o-o !

SALTZEN DA

Maoulen

DETCHEVERRY enian

Atharratzen

CAUTURE enian

Prezioua : BI SOS



## BEGITHARTE HORIEK :

- (E) *erran nahi da* : Estiapen hastia *edo argizagi bethe*.  
(F) " Argizagi azken laourdena.  
(G) " Gorapen hastia *edo argizagi berri*.  
(H) " Argizagi lehen laourdena.

## OURTHEKO BESTA KHANBIAKORRAK :

SETUAJESIMO, *baranthailako* 14<sup>an</sup>; — HAOUSTE, *marti-choko* 2<sup>an</sup>; — BAZKO, *aphirilako* 17<sup>an</sup>; — ERROGAZIONIAK, *maiatzeko* 23<sup>n</sup>, 24<sup>n</sup> eta 25<sup>an</sup>; — SALBATORE, *maiatzeko* 26<sup>an</sup>; — PHENTEKOSTE, *arramaiatzeko* 5<sup>an</sup>; — BESTABERRI, *arramaiatzeko*, 16<sup>an</sup>; — ABENTUKO LEHEN IGANTIA, *azaroko* 27<sup>n</sup>.


## LAOUR THENPORAK :

|  |   |   |
|--|---|---|
| Gorotzilako 9 <sup>n</sup> , 11 <sup>n</sup> eta 12 <sup>n</sup> .   | { | Buruilako 21 <sup>n</sup> , 23 <sup>n</sup> eta 24 <sup>n</sup> . |
| Arramaiatzeko 8 <sup>n</sup> , 10 <sup>n</sup> eta 11 <sup>n</sup> . |   | Abentuko 14 <sup>n</sup> , 16 <sup>n</sup> eta 17 <sup>n</sup> .  |

## EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :

Ekhi ulhuntze osoua, jorrailako 26<sup>an</sup>; ezta ikhousiren Uskal Herrian. — Argizagi ulhuntze phartekoua, maiatzeko 11<sup>an</sup>; ikhousiren da Uskal Herrian; hatsarria, arratseko 9 oren eta 19 minutetan, urhentzia, gaiherdi eta 45 minutetan. — Ekhi ulhuntze phartekoua, urrieta 20<sup>an</sup>; ezta ikhousiren Uskal Herrian. — Argizagi ulhuntze osoua, azaroko 4<sup>an</sup>; pharte ikhousiren da Uskal Herrian; hatsarria, arrastiriko 3 oren eta erditan, urhentzia arrastiriko 4 oren eta laourdenetan.






## HANITCH KHASU HOUNI

**Z**IBEROUKO, armanaka eginik da bi kartillaz algarreki jossirik. Lehena, mehe mehia, hamabi hilabeteren egunaria dena, ourthiaren urhentzian berheztekoua da nahidenaren egiteko. Bigerren kartilla edo phartia, mintzo dena istoriaz, aholku hounez laboriarentako, errezetaz, etc., harek ourthe oroz behar du begiratu arrankurareki. Hollak markaturik dutu bost ourthez arrount. Igaran laour ourthetako kartilla begiratiak, aourthenkouareki josten ahal dirate libru gocho eta balious baten egiteko.

Bost ourthe hountan eman zathien edirengia hontarik landan emaiten dugu. Kartilleki josten ahal date.



1888 - 1891

## OURTHETAKO ARMANAKEN EDIRENGIA

|  |     |            |
|--|-----|------------|
| Uskaldunak.....                                | 1,  | 38         |
| Bozkez.....                                    | 5,  | 23, 129    |
| Dugun hortarik abokatubat.....                 |     | 10         |
| Eskoletzaz. — Haouren eraikitiaz.....          | 5,  | 52, 80, 97 |
| 1789eko Erreboluzionia — Istoria.....          | 34, | 76         |
| Errepublika eta Erreligionia.....              | 39, | 70         |
| Réveil Basque denaren erranak.....             |     | 47         |
| Errepublika eta Laborariak.....                |     | 65         |
| Igantiaren begiratzia.....                     |     | 67         |
| Errepublika zer khostatzen den Frantziari..... |     | 77         |
| 1890 den ourthia.....                          |     | 99         |

|   |          |
|---|----------|
| Gaseta gaichtoua.....   | 102      |
| Aphiez zounbaiti phakiaren idokitiaz.....   | 104      |
| Egun oroz ikhousten dena.....   | 107      |
| Uztaila 14 <sup>eko</sup> besta.....  | 108      |
| Harginbelzak .....  | 136, 111 |
| Pelotakarien khantoria.....   | 113      |
| Chouri edo gorri.....   | 133      |
| 1891 den ourthia.....   | 140      |
| Uskaldun aphezer eman ouhourez.....   | 145      |
| Noula Erreligiona gal erazi nahi dien gorriek.....  | 143      |
| Istoria, erasi, khountu zahar, 8, 10, 29, 45, 62, 94, 124, 158  |          |
| Laborantchaz:   |          |
| Aiehn ostouaren lur sagarren eta toumaten eri-<br>tarzunaz, eta haren sendogalliez; — Mahats<br>graspatic egiten den ardoua; — Kukien gale-<br>rartzia..... | 19 - 29  |
| Uztak 1888 <sup>an</sup> ; — Ogien ebakiteko phuntiaz;<br>— Aihen ostouaren eritarzun berribat zuhañen<br>latsunez chouritzia; — Noula gal erazi uñhurriak. | 55 - 62  |
| Uztak 1889 <sup>an</sup> ; — Mahastiduner aholku; — Gorot-<br>zaz ; — Aihen ostouaren eritarzunari buhurtzeko<br>bidebatez..                                | 82 - 94  |
| Uztak 1890 <sup>an</sup> ; — Behi barrukien arthatzia, iraour-<br>geiez eta houngarriez; — Gaztañatzen eri tarzu-<br>naz; — Gatza.....                      | 115-124  |
| Uztak 1891 <sup>an</sup> ; — Hountkallu berriez; — Kounder-<br>rengaleraztia.....   | 148-158  |





## OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.



- ⌚ l. l. 7<sup>n</sup>, goizanko oren 1 eta 22<sup>min</sup>  
 ⌐ a.b. 14<sup>n</sup>, goizanko 3<sup>or</sup> eta 36min  
 ⌒ a.l. 22<sup>n</sup>, goizanko 3<sup>or</sup> eta 52min  
 ⌓ a.b. 29<sup>n</sup>, arrastiriko 4<sup>or</sup> eta 48min

## BARANTHAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- ⌚ l.l. 5<sup>n</sup>, goizanko 9<sup>or</sup> eta 48min  
 ⌐ a.b. 12<sup>n</sup>, arratseko 7<sup>or</sup> eta 48min  
 ⌒ a.l. 21<sup>n</sup>, gaiherdi eta 24<sup>min</sup>  
 ⌓ a.b. 28<sup>n</sup>, goizanko 3<sup>or</sup> eta 57<sup>min</sup>

|                   |                           |                   |                             |
|-------------------|---------------------------|-------------------|-----------------------------|
| 1 Ostirale.       | ZIRKONZISION              | 1 Astelehen.      | s. Iñazio.                  |
| 2 Neskanegun.     | s. Makaire.               | 2 Asteharte.      | KHANDERALLU                 |
| 3 <b>Igante.</b>  | s <sup>a</sup> Jenevieve. | 3 Astizken.       | s. Blasi.                   |
| 4 Astelehen.      | s <sup>a</sup> Fausta.    | 4 Ostegun.        | s <sup>a</sup> Jana, Val.   |
| 5 Asteharte.      | s <sup>a</sup> Amelia.    | 5 Ostirale.       | s <sup>a</sup> Agata.       |
| 6 Astizken.       | APHARIZIO.                | 6 Neskanegun.     | s. Amant.                   |
| 7 Ostegun.        | s <sup>a</sup> Melania.   | 7 <b>Igante.</b>  | s. Romuald.                 |
| 8 Ostirale.       | s. Luzien.                | 8 Astelehen.      | s. Johane Mat.              |
| 9 Neskanegun.     | s. Julien.                | 9 Asteharte.      | s <sup>a</sup> Apolina.     |
| 10 <b>Igante.</b> | s. Marzien.               | 10 Astizken.      | s <sup>a</sup> Eskolaztika. |
| 11 Astelehen.     | s. Teodoso.               | 11 Ostegun.       | A.D.M. Lourdekoia.          |
| 12 Asteharte.     | s <sup>a</sup> Tazienna.  | 12 Ostirale.      | s. Tito.                    |
| 13 Astizken.      | s. Leonze.                | 13 Neskanegun.    | s. Gilbert.                 |
| 14 Ostegun.       | s. Hilera.                | 14 <b>Igante.</b> | Setuajesimo.                |
| 15 Ostirale.      | s. Phaoule, erm.          | 15 Astelehen.     | s. Faustin.                 |
| 16 Neskanegun.    | s. Marzel.                | 16 Asteharte.     | s <sup>a</sup> Juliena.     |
| 17 <b>Igante.</b> | s. Antoni.                | 17 Astizken.      | s. Hijin.                   |
| 18 Astelehen.     | J. Phetir. Err. Jartia    | 18 Ostegun.       | s. Flavien.                 |
| 19 Asteharte.     | s. Kanut.                 | 19 Ostirale.      | s. Konrad.                  |
| 20 Astizken.      | s. Fabien eta Sebast.     | 20 Neskanegun.    | s. Eucher.                  |
| 21 Ostegun.       | s <sup>a</sup> Añes.      | 21 <b>Igante.</b> | Setuajesimo                 |
| 22 Ostirale.      | s. Bizente.               | 22 Astelehen.     | J. Phetir. Ant. Jart.       |
| 23 Neskanegun.    | A.B. Ezkountz             | 23 Asteharte.     | s. Phetiri Dam.             |
| 24 <b>Igante.</b> | s. Timote.                | 24 Astizken.      | s. Dosite.                  |
| 25 Astelehen.     | J. Phaoulkomb.            | 25 Ostegun.       | J. MATHIAS, ap.             |
| 26 Asteharte.     | s. Polikarpe.             | 26 Ostirale.      | s. Zesaire.                 |
| 27 Astizken.      | s. Johane Kris.           | 27 Neskanegun.    | s <sup>a</sup> Batilda.     |
| 28 Ostegun.       | s. Amedeo.                | 28 <b>Igante.</b> | Kinkajesimo.                |
| 29 Ostirale.      | s. Frantzes S.            | 29 Astelehen.     | s. Rufin.                   |
| 30 Neskanegun.    | s <sup>a</sup> Martina.   |                   |                             |
| 31 <b>Igante.</b> | s. Peñiri Nol.            |                   |                             |



MARICHOUA edo GOROTZILA

Egunak luzatzen dira 2 orenez.



- ⌚ l. l. 5<sup>n</sup>, arratseko 7<sup>or</sup> eta 24<sup>m</sup>.  
 ☺ a. b. 13<sup>n</sup>, arrastir. or. 1 eta 5<sup>m</sup>.  
 ☺ a. l. 21<sup>n</sup>, arrastiriko 5<sup>or</sup> eta 26<sup>m</sup>.  
 ☺ a. b. 28<sup>n</sup>, arrast. or. 1 eta 27<sup>m</sup>.

APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.




- ⌚ l. l. 4<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 31<sup>m</sup>.  
 ☺ a. b. 12<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 35<sup>m</sup>.  
 ☺ a. l. 20<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 10<sup>m</sup>.  
 ☺ a. b. 26<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup> eta 56<sup>m</sup>.

|                         |                                  |                |                    |
|-------------------------|----------------------------------|----------------|--------------------|
| 1 Asteharte.            | s. LEON, <i>Baion.</i>           | 1 Ostirale.    | s. Huges.          |
| 2 Astizk. <i>IV Th.</i> | HAOUSTE.                         | 2 Neskanegun.  | s. Frantzes P.     |
| 3 Ostegun.              | sa Kunegonda.                    | 3 Igante.      | PASIONIA.          |
| 4 Ostir. <i>IV Th.</i>  | s. Kasimir.                      | 4 Astelehen.   | s. Isidro, Aphk.   |
| 5 Nesk. <i>IV Th.</i>   | s. Luperkule.                    | 5 Asteharte.   | s. Bizente Ferr.   |
| 6 Igante.               | GOROZUM. 1 <sup>a</sup> .        | 6 Astizken.    | s. Sisto.          |
| 7 Astelehen.            | s. Tomas Akin                    | 7 Ostegun.     | s. Herman.         |
| 8 Asteharte.            | s. Johane Jink                   | 8 Ostirale.    | s. Albert.         |
| 9 Astizken.             | sa Franzesa.                     | 9 Neskanegun.  | s. Akazio.         |
| 10 Ostegun.             | 40 Martirak.                     | 10 Igante.     | ERRAMU.            |
| 11 Ostirale.            | s. Konstanti.                    | 11 Astelehen.  | s. Leon handia     |
| 12 Neskanegun.          | s. Gregori handia.               | 12 Asteharte.  | s. Jules.          |
| 13 Igante.              | <i>Gorozum.</i> 2 <sup>a</sup>   | 13 Astizken.   | sa Ermenejilda.    |
| 14 Astelehen.           | sa Matilda.                      | 14 Ostegun.    | Osteg. saintu.     |
| 15 Asteharte.           | s. Zakaria.                      | 15 Ostirale.   | Ostir. saintu.     |
| 16 Astizken.            | s. Ziriake.                      | 16 Neskanegun. | Nesk. saintu.      |
| 17 Ostegun.             | s. Patrick.                      | 17 Igante.     | BAZKO.             |
| 18 Ostirale.            | J. <i>Gabriel</i> , ark.         | 18 Astelehen.  | s. Elutero.        |
| 19 Neskanegun.          | s. JOSEF.                        | 19 Asteharte.  | s. Leon IX.        |
| 20 Igante.              | <i>Gorozum.</i> 3 <sup>a</sup>   | 20 Astizken.   | s. Teotimo.        |
| 21 Astelehen.           | s. Benedit.                      | 21 Ostegun.    | s. Anselmo.        |
| 22 Asteharte.           | sa Riktruda.                     | 22 Ostirale.   | s. Soter eta Kaio. |
| 23 Astizken.            | sa Pelajia.                      | 23 Neskanegun. | s. Jeorji.         |
| 24 Ostegun.             | s. Gabriel.                      | 24 Igante.     | s. Zerazi.         |
| 25 Ostirale.            | A.D.M. ANONTZ.                   | 25 Astelehen.  | J. MARK, Eb.       |
| 26 Neskanegun.          | s. Braulio.                      | 26 Asteharte.  | s. Klet & Marz.    |
| 27 Igante.              | <i>Gorozum.</i> 4 <sup>a</sup> . | 27 Astizken.   | s. Zerazio.        |
| 28 Astelehen.           | s. Justin.                       | 28 Ostegun.    | J. Phaoule, K.     |
| 29 Asteharte.           | s. Pastor.                       | 29 Ostirale.   | s. Phetiri, m.     |
| 30 Astizken.            | s. Amadeo.                       | 30 Neskanegun. | sa Katalina, S.    |
| 31 Ostegun.             | s. Benjamin.                     |                |                    |



## DAIGUN OURTHEKO BOZKAZ :



**D**AIGUN ourthian tukegu herrietako kountsel-lien arraberritzeko bozkak. Houna eginbide hortan khristi burhagertu nahi diren botze-mailer *Annecyko Jaoun Aphezkupiak* guthun-batetan emaiten tian erakouspenak :

Herriko aholkuzkouen haitatzia, hountsellu gehiene-kouen edo deputatiengen haitatzia bezañ harainti da. Ala bat ala beste den, Jinkouak ber eginbidia eretchekiten deiku; entelegiak ber bidiak erakousten.

Eginbide berak, bai, bena hanitchetan nekiago dire-nak bethatzeko, herri aholkuzkouen bozketa besté edo zouñtan beno.

Eginbide berak :

Botzemailiak bere botza baderio nourbaiti herriko kountselliansar erazteko, dakilarik hora, kountselluko bada, Erreligionari traba egiteko ariko dela, botzemailiak halaz bekhatu mourtalbat egiten du.

Houna kountselluko izan nahi diren gizoun elibat : badirade bai, gizoun hourak Jinkouari herrian utzultzen deitzen ouhouren gutiziari aiher; nahiko dutie herriko haourrak khristitarzunian eraikirik izatetik gibeltu. Halakouer bere botza emaiten dianak bekhatu mourtalbat egiten du.

Ezi bekhatu izigarria da haourrak khristitarzunian eraikirik izatetik gibeltzia; bekhatubat da bardin izigarria khristier idokitia Jinkouaren zerbutchatzeko, gra-ziaren ardiesteko eta arimaren salbatzeko dutian ahaluniak edo ehidurak. Hori dela mera harek, aholkuzko gizoun haien dien bekhatia, izentaturik badira.

Hori dela halaber zoure bekhatia, zuk dutuzulakoz gizoun hourak herrian buruzagi ezari denborabatentzat; zukbeitutuzu gizoun hourak ezari egingei zien gaichkia-ren egiteko menian, eta zoure botzaren bidez beitira bekhatu haietzaz hobenduntzen.

Bestalde orano, botzemailiak, haitia badilarik gizoun chuchenen eta erreligionedunen artian, eta zer egiten dian dakilarik, haita balitza gizoun hetarik gaizouenak eta jakitate gutienekouak, bekhatu egin liro. Ez hullanik ere Erreligioniaren etsaietarik haitatzen balatu bezañ bekhatu handia, bena hategatik bekhatu, gutiago edo gehiago. Aholkuzko gizounek herribatetan behar die hanitchtto egitekorri buru eman, eta bazaio argitienetarik izan ditian.

Botzemaile bakhoitzak eginbide berak dutu ala herrikó aholkuzkouen ala deputatiengaitatzian.

Bena goure bizian ezta traba gabe betha dezakegun eginbiderik eta gerouan khosta behar etzaikunik. Deputatu batentako botzaren behar bezala emaitiak franko nahi gabe badereitze botzemaile zounbaiti; herriko aholkuzkouentzat emaitiak handiagorik orano.

Ezi deputatubat ezta behin ere edo bekhan baizik ikhousten; ez behar bada aitzinetik harekin egitekorik ukhen, ez ukhenen ere. Bena kountselluko nahi direnak ezagunak, egun oroz begien aitzinian, eta usian behin beno haborotan. Deputatiak ikhousirik ere etzutu ezaguturen; merak ezaguna zutu; merak eta kountsellukouek badakikie haientzat ala haien kountre botza eman duzun. Bestalde badira herrietaen familien arteko etchekimentiak; bai eta ere algarren arteko isiak eta etsaigouak, bata bestia bezañbeste izan nahiak. Ezta arren hullanik ere hañ ehi botzaren emaitia aholkuzkouentako noula deputatiengaitan. Eta kountselluko bozkan azkarrago dirate arrazouak edo aritzakiak goure eginbider ukho egin erazteko, eta, goure beithako botza arnegatuz, goure Jinkouari ogen egitera boulkatzeko.

Hortakoz bazterrak |khechu eta erraitekouak handi,

ezagut erazten dutugunian botzemailen eginbidiak herriko aholkuzkouen haitatzian.

Batek erranen : Goure merari eztzaio deus ahazten, eta mendekazalen hutsa da. Chahu niz ohartzen bazaio ez nizala haren althekouetarik; hogeita hamar ourthez gutienik harekilakouak eginak dutut. Hasteko eztut zeren harenanik den gutieneko laguntzarik uguruki; ez dereit pherestatu nahiko ardit zilhatubat, ez behar ordian bere orgetarik, ez zaldirik, ez idirik. Eta nourk daki, ahal badu, zer ogen ezzereitan eginen? Ez gogotik eginik ere, zohogi da arren haren eta haren gizounen althe botza eman dezadan, haren berriz meratako izenta eratzia.

— Hanitch badirade hola mintzo.

Bestek erranen die : Nahi nuke segur erreligionedunek ekhartent dutien gizounen althe botza eman. Bena ihountik ezin. Gogoko nutukian izen haien artian, baba bat ikhous eztirokedana, eni aiphatu behar eztena. Haren aitasouak aouzibat (edo prozesbat) egin zian eniari, eta aouzi hartarik landan baratu girade etche oundoko alhor eder harez gabetiak. Ez, sekulan eztut gogouan erabiliko ez harentzat ez eta haren adichkidentzat botzaren emaitia.

Beste zounbait aldiz dirade tchostatu nahian. Bozka aitzineko egunetan, beren artian solaz : « Berri bagintza goure kountsellukouak! Hamar edo hamabost ourthe hountan bethi berak naousi, ouste beitie araouz hourak gabe ezkitakela bizi. Haien ordari ezar ditzagun gaztarik. Deus eztakikie, bena zer erran nahi da? erri egitia ere zerbait beita ».

Holako botzemailer beithak ihardesten : « Zoure eginbidea! zoure eginbidiari jarraik. Zoure tchestia beno lehen duzu Erreligioniarena houna, zoure adichkidiak edo etsaiak beno lehen herriaren houna. Mundu hountako aisiak eta nahigabiak beno lehen Jinkouaren jujamendua eta bethiereko saria edo zehadoia.

Holakorik gogouan erabil deiteke batzietan, erran nahi da, bere hounetan denari beha daitekiala, maite

eztena bazterrialat eitz, eta tchosta ere behar bada. Nouiz hori ? Osoki bardin denian zerbaiten egitia edo egin gabe eitzia. Bena bozkan bestelakorik de la gogoua : heben eginbidebat hari jarraiki behar beita, eta behin ere ez haizu haren bazterrialat igortia.

Horik dira Isoard Jaoun Aphezkupiaren erranak. Dugun zerbait haboro Ziberoutarentako. Goure bazter herrieta mera da, gehienetan segurrik kountselluko habia : noulako mera, halako kountsellian direnak. Ihour merabati buru egin dirokianik, edo eskola eskazez, edo gerouan kounselluko ez izan beldurrez, edo deus eztaitekialakouan orobat haren kountra ardiets. Artetarik ere haouche ikhousi die, kountsellu bera merabateki gaichto, mera hala zelakoz, bestebateki houn, aldiz. Arren Erreligioniaren althekouak burhagert ditian, eta izenta ditzela berak uduri direnetarik. Eta izentaturik diraktekienek haita dezela meratako beren artian argitiena eta Erreligioniaren hounetan segurkienik ariko dena. Halaz oundoko bozketan ehiago beitate gudukatzia, halaber Erreligioniaren etsaien goitza.

Enthelegatzen duzie, erakourzale maitiak, zer eginbide handiari buruz ziratekien zounbait hilabeteren burian. Gogoua ountsa eman eskazez horri, Elizaren etsaietara jouan baledi photeria, zer hira eztunukie eta zer beithako sortha ! Ez beha zien burkhidek erranen deitziener. Jinen zaitzie, Atharratzen bezala diala zounbait ourthe, nahiz beren althekouetarik sar erazi kountsellian, ezzapdie bozkan esparantcha une handirik : « Erdizka eman ditzagun kountsellukouak. » Gogo emazie eta ohartukhen ordian zer agitu den Atharratzen, halaber eztaikizien agit. Eta ez botzik eman ere dudazkouer : badirade haietan chouri uduri direnak eta gero, izentatu oundouan, gorri bilhakatzen.





## CHOURI EDO GORRI ?

---

**D**I ALA ourthebaten ungurunia, *Jaoun Lavigerie*, kardinalak, marinako aitzindari zounbaiti eman zian bazkaribat, eta khumitier erran zutian batzarri hounezko elhetan, aholkatzen zutian katolikouak oraiko gobernu mouldiari trabarik ez egitera. Houna geroztik hañbeste aiphatu tien elhe hourak : « Erran gabe da Elizak eztiala galthatzen bere haourrer ukho egin dezen igaran denari, ez eta bihotzian dutien estekamentuzko eta eskerrezko gogoueta houner. Bena nazionebatek bere nahia ezagut eraziz geroz, eta bestalde gobernumouldebatek eztianian beraourtarik, bereizatian, deus Erreligioniaren edo odre hounaren buhurt eztenik ; ezpadeiteke aiterria (edo sor lekhia) galtzetik begira gobernu moulde hora houn hartzez baizik, batbederak behartu, bere beithari eta ouhouriari ogen ez egitez, beste gogouan lutukianak ichil erazi, Erreligionia eta Frantzia direlakoz. »

Elhe horik diren bezala hartuz, eztie deus espanta-garririk, jakinez geroz Eliza eztela hanbat etchekitzentz gobernubaten izenari, gobernu hora ountsatik eta hounetik ari den ber. Bai bena zouazte gaseta phozouatieng oundotik ! Handiek eta tchipiek, orok, *Réveil Basque* denak bestek bezala, erran ukhen die Kardinalak eztziala ez berere houn hartzen errepublika izena, bena Errepublika den bezala, bere lege tzar eta Erreligioniaren kountrekoueki. Gezurraren Aita deithu diena elaitiske beste gisaz mintzo. Orok badakie (salbu menturaz orai artekan errepublikatiar burhagertzen zirenek), Lavigerie kardinala zounen borthizki buhurtu izan den, bere era-kouspen eta guthun orotan, Frantziak egarten tian lege tzarrer, eta Erreligioniari thai gabe goure herrian egiten den gerlari. Noula gezurra bere bidian beitzouan, Kar-

dinaliak behar ukhen tu gezurtatu gazeta gorriak, zioualari. « Oraiko gobernu mouldiari deus ez egitez hitz emanikelz ere, eztutala bazterrialat eitziren, lege gaichtouer eta persegitzionari buhurtzeko dutian zuzenak, eta katolikouak aholkatzen tiala halaber egitera. Aphezkupu zahar hañbeste ourthez Eliza zerbutxatu diana bestelako izan daitiala erraiteko, beharda izan pagano beno sordeis. »

Bai bera haoudela : gazeta gorriek lehiatuki eman bazutien Jaoun kardinaliaren lehen erranak, ichil baratu biggerren letera horren gañen, *Réveil Basque* dena, beste hora uduri direnak bezala, eta haien erakourzaletarik haborouek ouste die araouz, Jaun Lavigerik ounhesten tiala aphezeiak soldado, fraidiak eta serorak eskoletarik kanpo, eskolak katichima eta othoitzerik gabe, eta gorriek egin tien beste lege gaichtouak oro.

Aphez batek ere, igaran egunetan nahi ukhen zian egin bere gisako balentriabat. Izkiribatu zian gazeta gorribati Errepublika ounhesten ziala, ez errepublika gobernu moulde bezala, bera errepublika orai den bezala. Berhala gazeta gorriek karraska handi. Eztien halakorik entzun aspaldian ! *Réveil Basque* denak aphezaren letera uskaraz eta frantzesez eman, berri houn hori khountatu cheheroki. Arte hartan, aphez buru mehe edo berouegiari Jaoun aphezkupiak adarrak sarerazi ; aphez gaizouak leteraz aithortu gaichki egin ziala eta dolumenetan zagouela. Gazeta gorriek, *Réveil Basque* denak bestek bezala, eztie hitzik ere aiphatu biggerren letera horrez, eta haien erakourzalek ouste die orano *Palfray* aphezak houn hartzen diala Errepublika den bezala.... Bethi gezurra.

Horik hola, zer beharda phensatu Jaoun Lavigerien erranaz ? *Réveil Basque* eta haren utchurako gasetek dioienaz, behar othe deia eman botza oraiko lege gaichtouen althe diren errepublikatiarrer. Ezetz, segur ! Dudarik ezta gorriek hortara erazi nahi lutukiela chou-

riak ; atzamaiten ere dutie ollo bousti, sudurra beno aitzinago ikhousten eztien zounbait.

Gorriek bai erraiten die Erreligioniare etsai diren lege galgarrier. Han hebenka zounbaitek aithorturen, beharbada, lege horik eztirela estakuru gabe ; bena lege direnaz geroz, bai erran behar dela bardin, buria aphaltuz. — Ber denboran goratik arrapikatuko die behin ere Erreligionia eztela hañ libre eta hañ ouhouraturik izan. Nour sinhets, ala hola mintzo diren gorriak ala Elizaren aitzindari Jinkouak ezari dutianak.


Utsu eztenak ehiki ikhous diro Erreligioniari gudu egiten diela, eta gudu egiliak gorriak direla. Pariseko Jaoun Aphezkupiak guthunbatetan ziouan orai dela thenoriajakiteko, bai ala ez, Frantzia khristi egonen denez : « 1891<sup>e</sup>ko legebaten arau, ezta behar eskoletan Erreligioniare erakouspenik, ez othoitzik ; 1891 an fraidiak oro eskoletarik kanpo ezariko tie, eta gerochago serorak ; fraide eta seroren hountarzunen gañen halako gisaz legia ezari die noun, denbora luze gabe, hountarzunik batere gabe baratukobeitira, eta hountarzun hourank goberniak ebatsirik dirate ; 1889 an legia aphezgeien soldado jouan erazteko. » Eta beste hanitch holako.

Halarik ere *Réveil Basque* dena, Erreligioniari eztirela jatzartzen ; aphezen soldado jouan erazteko legia munduko hobena dela. Zer beharko da ihardetsi gorrier ? Jaoun Isoard Annecy ko aphezkupiak argituren gutu : « Ez, dio gorrier buruz, ezkira zienganako, eta hori bi arrazouen gatik. Lehena, ezpeitzirade doian edeiten ; eta hitz horrek daduka zier hamabost ourthe hountan egin tien erreprotchiak. Bigerrena, ezpeitugu batere zianganat jouaiteko, ez beharrik, ez gudiziari. Frantzia-ko gira ; goure etchen gira heben, eta egon gei dugu. Nouiz eta Errepublikabatetan majoria dienek, bere beithaz bidegabetik ari beitira, haien herritar doietik ari nahi direnak indarkatu behar dira majoriaren biltzoko, edo, ezin bestez, ahal oroz burkhider buhurtzeko. Hortik eman gei dugu.


« Eztzirade Errepublika, ez eta Frantzia; eztzirade naousien antzo, eta ez gira zien peko. Eztereiziegu deus galthatzen, eztugu ziek batere tratu egiteko beharrik. Gobernu errepublika moulde den orotan, herrikouek batie ekhiaren pian bere lekhiaren hartzeko zuzena eta bidiak. Lekhu hora dugu hartu nahi, eta, orai artekan eztugu egin, katoliko edo chouri aitzindari hanitchek bere gogouak bete beitzutien gobernu khanbiobaten ametsaz. »

Badakie nountik eta noula ari beharko dien chouriek, Erreligionia maite dien guziek. Eztugu Errepublikari buhurtu beharrik, Errepublika izena dialakouan gobernu horrek. Errepublika houn izan dadin, lege tzarrak eitz ditzan bazterrialat, eta hen ordari ezar ditzan hounak, eta Erreligioniaren althe direnetarik, hañbeste sosik eztezan behar gabe igor, zorretarik jalkhi dadin, eta aski dateke. Hartaraz geroz, izena deus ere ezta. Eztzena Errepublika behar bezalako gerla oundo-ko lehen sei ourthetan, chouriek majoria zieno?

Bozketan katolikouek bere botzak dereitzela bethi Erreligioniaren altheko gizouner, ez berere elhez althe, bena aspaldian hala eta feitez burhagertu direner. Gourebeitak hori manhatzen deiku. — Ohi bezala chouri eta gorri, erran nahi beita aldebatetik Erreligioniaren etsaiak, bestetik harentiarrok. Eta Errepublika denaz geroz, iseria ditian orotan chouriak burutan jouaitera.



### HARGINBELTZAK



**H**ARGINBELZEN aitzindari ohibatek agert erazi du, dia bi ourtheren ungurunia, librubarbat: *Algarren arteko izatiaren-etsaia*. Libru hartan khountatzentu harginbelzen khidegouak berrehunbat ourthe hountan

Frantzian, Beljikan, eta Italian egin eta egiten tian okherreria handiak. Orano bazterretan ouste dienek khidegoua hora eztela naousi oraiko errepublikan, ountsa beno hobeki egin liroie libru haren erakourtzez.

Goure goberniak harginbeltzetarik dutu bere gizoun aiphatienak; harginbeltzen khidegouak nahi dian bezala bere lege eta egiteko guziak antolatzen tu. Jadanik 1888<sup>an</sup> Frantziako harginbeltzgouaren gasetak ziouan: « Batugu bi khanberetan harginbeltz araldi ederbat, zerbait nahi dukegunian aouherretan mintzatuko ezti-renak. » Oundoko ourthian, hala hala, *Colfavru* deputatiak *Goizerri Handia* den (Grand Orient) bilkhurako gehienak ziouan: « Bagirade berrehun harginbeltz deputatu khanbaran; ezi gu gira Errepublikaren laguntzale hobenak, aldebatetik, eta bestetik, guk egiten dugu botigoua ichilbat, eskupetik bethianian ari dena. »

Geroztik harginbeltzak usutu, eta hen oztia hañda handiturik, noun naousituriak beitira bai deputatien, bai senadoren khanberan. Bi khanberetako gehienak harginbeltz; halaber Errepublikako gehiena, Carnot, eta ministrouetan haborouak. 1884<sup>an</sup>, *M. Constans*, goure gobernamentuko gizoun aiphatienak galthatzen zian harginbeltzgouako kargietan goraturik izatia. Houna noula galthro hora egin zien harginbeltz bilkhurabat etan: « Anaie horrek du abiatu goure herrian aphezgouaren kountrako guduka, eta fraiden komentietarik kanpo igortia. Ez giniro hobeki ihardets Aita Saintiak goure khidegouaren kountra oihusta erazi dian guthunari, goure anaie hounen kargutan gorago jouan eraztez baizik. » Erranaren araou, *M. E. Constans* denari eman zien gudiziatzen zian kargia. Erran gabe, holako buruzagiek, Errepublikako kargu guziak harginbeltzez betherik dira, eta kargu haietan (ez orotan hatik) ezta menturaz aitzinatzeko bide hoberik harginbeltz izatia baizik.

Oraiko goberniak harginbeltzak dutu bere gizounak;

haien dutie goberniaren baiareki erazten haintchtto lege, berheziki Erreligioniaren kountra egiten direnak oro. Lege hourak asmatzen eta antolatzen dutie lehenik bere thegietan edo bilkhuretan, eta gero, berak naousituk direlakoz khanberetan, igaran erazten, Erreligioniaren ahalaz galerazteko. Ez ditzagun alpha katichimaren eskoletarik idokiteko, eta aphez geien soldado jouan erazteko legiak baizik.

Harginbelzbatek, *Lepelletier* zena, *le Mot d'Ordre* den gasetan ziuan eskolako legiaz 1885<sup>an</sup> : « Badu jadanik hanitch ourthe lege hori asmatu eta antolatu guniala harginbelzen artian. » Chede hountarik ari dira harginbeltzak : « Ez emaitia haourrari batere Erreligioniaren eretzeko erakouspenik, zeren eta gizountu denian, Erreligioniak eretchekiten deritzon eginbidiak bazterrialat eitzirik ere, bethi lehen erakouspen hetarik zerbait baratzen beita. » 1889<sup>an</sup> *Desmons*, deputatu harginbeltzak, khidegouako gasetetarik batetan izkiri batzen zian : « Geroua nahi gunuke aphezgouari idoki; hortako nahi dutugu haourrak hartarik osoki berhezi; hortako nahi dugu haourrak izan ditian guk argiturik eta eskolaturik ».

Aphezeien eta aphezen soldado jouan eratzia aspal-dian gogouan zien harginbelzek : « Esparantcha dugu, dioie, lege horren bidez ezdatekiala hogei ourtheren buruko aphezik, ez eta Aita Sainturik berrogeitahamar ourtheren buruko ».

Ororen burian, haou berbera die nahi harginbelzek : Erreligionia chahu galerazi. *Lanessan* denak klarki dio « harginbelzgouaren lana dela Erreligioneko sinheste guzien erazabatzia eta ohiltzia, aphezer bere indarren idokiteko. » Frantziako thegien biltzarren osouan, diala hamabi ourthe (1879<sup>an</sup> arramaiatzeko 11<sup>an</sup>) Parisen, haouche igaran zien beren artian harginbeltzak : « Behar zela urkhatu Erreligionia emeki emeki, ourthe oroz, aphezgouaren kountrako legez, azkenian elizen zerra erazteko. » Ehi da ikhoustia, harginbelzak errepublikako gobernian

buruzagiturik direlakoz, hortarik ari direla bethi, thaiik batere gabe. Emeki emeki ikhousten tugu khanberetan igaraiten, thegietan lehenik egin legiak.


Aourthen berian, harginbeltzen bilkhura batzutan, igaran die behar tiela *orolan* ospitaletarik serorak ohiltu, eta hen ordari ezari erreligiona gabe diren emazteki elibat : halaz hilzekotan diratekianek eztie, nahi ala ez, aphezik ikhousiko. — Halaber Bordaleko harginbeltzen bilkhuran, igaran arramaiatzeko hirouan, haouche zien gai hartako lana oro : « *Koungregazionen Frantziatik ohilterazteko bide segur eta errechenaren bilhatzia eta ikhertzia.* » — Halaber ere, ikhousi beitie aphezek dutien eskolategiek, behin ere ukhen eztien beno haboro eskolier badiela, egin die legegeibat, hartan irakourten beitugu ihour eztiala hartuko gobernuko eskola handietan, ihour eztiala gobernuko enplegurik emanen, ihourik azkenian eztukiala zer nahi brebet, noun ezdatekian eskolaturik izan gobernuko eskoletan, *lycées* direnetan. Lege hori, denbora luze gabe, igaran erazi nahiko die khanberetan.

Horik oro ezin ukhatiak. Horien ororen burian ikhousiko tugia Ziberoutar uskaldun erreligionetiarak gobernu harginbeltzen eskietan denaren althe ? Hanitchek eman tie, jakin gabian, bere botzak gobernia holako tzarrerietan laguntu nahi tien gizouner. Katolikouek Errepublikari bai erran badiroie, eztiraiteke orai gobernia diren gizounen althe agert. Erreligionedunek eztukie haieki batere hounik. Behar die, eta Aita Saintiak egainbide hori eretchekiten dere, harginbelzeria sankhapatetan ezari, eta harginbeltzer gaichkiaren egiketo ahala idoki. Ezkira hortara heltuko botzak erreligionetiar chourier emaitzez baizik, eta ez emaiten badutugu gorri harginbelz edo harginbelzen adichkide direner.





1891 den OURTHIA



**A**OURTHEN, hatsarretik burutan jouaiten hasi da gobernia : bi departamentu etan baizik eztie izentatu senadore chouririk, ourtharila laoureko bozkan ; beste orotan gorriak naousitu, eztielarik hatik ukhen zounbait botzen gañia baizik *Vienne* eta *Sarthe* direnetan. Ezten handi goure departamentiak zounbait ehun botz haboro emanik ere gorrier ; haregatik behar laite hortik geroko erakouspenbat idoki. Ezta dudatzeko, majoria gorri bada ere, hala dela chouriak ezinago lazu izan direlakoz herrietako aholkuzkouen haitatzian. Zounbat herritan, burutan ehiki joun leitekialarik, chourieg eztie hustu guduka, eta etsaiak eitzi buruzagitzera, arrazou ezdeus elibat zirelakouan ? Ez gitian arren gain- ti hortan tink egon. Senadoretetegian majoriaren ukheiteko bide segurrena da, lehenik naousitzia herriko kountsellietan, haiekbeitutie haitatzen senadoren izentazale haborouak. Ouste dut Ziberouan orai artekan beno hobeki adituko dela egia hori.

Bestalde batetik, goberniak burutu du, handizki, utchuraz phuru, sosjesaitebat. 869 milioen beharrian zen : eskentu deroie, hamaseietan galthatia. Eta gasetak gorriek botzik arrapikatu bitoria. Ezta zeren. Gasetak gorri eztzaie ohartu erraitia badela holako jesaitetan bi pherestazale muta. Batak, beren sos goititiez titre eroziak, begiratzekotan, eskentu beitie botian miliartbaten heña, erran nahi beita ez goberniak galthatia beno hanitchez haboro. Bestiak aldz, banka handiak, hamalaour miliartzen eskenzialiak, ezpeitie segur hañbeste eskentu jakin gabe eskentia eztzukiela eman beharko. Banka handi hourak titrieta gañen egiten tie arakhar- derrek bihietan gañen bezalako tratu elibat : gasetetan izkiriba erazten tien berriez titrien balia goraziten, eta

gero, erostuner, balindada, saltzen, ez segur galtzetan, bena irabazi ejerbaten idokiteko. Behar da erran orano primabat bazela, beharbada berrogeitahamar liberarena titre erosikal. Irabazi net houn bat emaiten beitu eros-tuner.

Eskentiaren bardintzian beharruniareki haouche agitukoda : beren khountuko erostunek, cztukie, galthatia oro eskentu dielarik eta haboroche orano, berrogeitzortzi miliouren titria baizik ; bestiak oro bankentako. Halaz galduko tie titre haborouen primak aldebatetik, eta, bestetik, nahi badukie titre erosи basketan, khariouago phakatuko tie. Hortik ageri orano, eskenzale segur-rak eztzirela gaseta gorriek alegatzen zien bezan ozte handitan. *Le Temps* den goberniaren altheko gaseta gothorrenari ezkapi zaio erraitia : « Irabazteko bi-debat edo primabaten esparantcharik ezpaliz izan, eskenzaliak eztziren saldoka jinen, eta ordian jesaitia eztzai-tekian burut ; ezta ageri zer irabazi zukian Errepublikak. » Eztaite klarkiago erran bitoria balinbazian goberniak arakhardergouari esker zela. Bitoria mehia arren.

Jesaitetik landan, jin daigun ourtheko budgetaren aldia. Ohi bezala ministrouak, elhez zuhur agertu, bena etchiñi egitez. Aourthen ere gastiaren emendio : ham bi miliou jesan berriari intres egiteko, eta 28 miliou haboro eskoletako, eta ororen burian, kantou guziak ikhertu oundoko, ehun miliouen eskaza. Bestalde goberniak bezala gastietan gainti egitez badouatza bai departamenttiak bai herriak.

Bozka aitzinetik gorriek karraska ederrik : Ez legar emendiorik, ez jesaita berririk. Hor tugula bai jesaitia, bai legar berriak. Aourthen berian bazen : 1º lurretan gañen legar gutiago 14 miliou ; bena bastizetan gañekoua hogeitahamarrez emendaturik ; 2º patanten legarraren emendio ; 3º chainkhuz edo zerbait mainkhuduraz soldadogouatik solthu dienen thallabat, mañatek (edo familiek) phakatzekoua ; 4º diharu plazatieng titrek phakatzen dien legarra emendaturik, ehunaren batez. Eta

eztutugu aiphatzen thai gabezko legar berriak, zantima haborokin, departamentietan eta herrietañ ourthe guziez gorentzez badouatzanak.

Bestalde, Frantziako duhulatian (*le Trésor*) egin zilouak handitu dira, legarkari hanitcheak ihes egunik, sos haborochago edo gutichagoreko. Goberniak sainetsialat eizten meza entzun nahi dien kargulantak : hordiala merechi dian phakhia. Eztira legarkariak mezzalat jouaiten, bena hetarik zounbait atzerrietarat goberniaren soseki, ehun milakouak sakoletan. Nourik betheko tu egin zilouak ?

Aourthen Carnot, Errepublikako, gehiena izan da Paouben eta Baiounan, eta eskentu deroie, Uskaldunen izenian, makhila obratu ederbat. Phena egingarri zen makhila eskenzalen artian ikhoustia hanitch Uskaldun, Erreligionia maite eta hari jariakitzen direnetarik, emaitza hortan pharte hartzen, eta mera zounbait ere, bethi danik chuchen burhagertu direnetarik, Jaoun Carnot ikerketa egiten. Sinhetsi nahi dugu hoiegatik, herriar haien gogouak bethi hounialat direla. Eta, hatik, ehi zatekian ikhoustia eztziela beste eginbiderik bazterrian egoitia baizik. Gasetakari batek izkiribatu dian bezala : « Carnot, presidentak, bai erran balu, zien mousaz, zien kabalez, zien etchaltez gabetzen zutukien lege bat, oihu eginen zuniena : Biba Carnot ? Ez, alatchoria ! ez.

« Eta hatik besterik egin duzieia ? Carnot, Presidentak orai artino ounhetsi tian legek zien egiazko hountarzunak mendretzen : lege hourak Jinkouarener buhurtzen, Elizarenak haosten; zouri, aita familiazko zirenari, idokitzen deizie zoure haourren khristitarzunian eraikiteko duzun zuzena ; zoure seme aphezgeiak igorten soldado, kasernan hazten diren biziouen eta gaichtokerien artian gal dadin. Eta ouste ukhen duzu Carnoti bazarre houn egitera jouaitetik eztzinela eskusa ? Zoure beithan sar zite : elukia uduri zoure mundu hountako hountarzunak beno gutiago edukitzan.

tuzula Jinkouari eta Eliza ama saintari zor deritzotzun ouhouriak eta gloria? Eztzinene hortarik ari, segur nuzu, bena berriz ere, zertako jouan Carnot Jinkouaren eta Elizaren persegiziari besta egitera? »



## NOULA ERRELIJIONIA GALERAZI NAHI DIEN GORRIEK

**A**OURTHEN danik eztate fraiderik haboro goberniak phakatzen tian eskoletan. Serorak ere igorten tie emeki emeki eta denbora llaburren burian fraidiak bezala eskoletarik kanpo dirate. Eskola habrouetan ezta haboro khurutcherik; eztie haboro haourrer Jinkouaren izena aiphatzen ere, ezpada kreatu Gutianaren eskarniatzeko. Holaz esparantcha die, oraiko haourrek, gizountu diratekianan, eztukiela batere federik; eta Erreligiona emeki emeki gal eraziko diela.

Bena aphezak hor ziren, eta aphezgouako uthurriak agorterazi nahiz, gorriek legia egin igorteko aphezgeiak soldado. Aourthen lehentze jouan dira, eta hil bada zounbait tropetan zirelarik, bestiak oro utzuliko dira seminariouetarat. Eztie behinkoz hounik gorriek aphezak soldado igorririk ere, bena zerbait antolatuko die bere gaichtakerian aphez geier fediaren galerazteko.

Bazen ere orano komentu, gorriek ezin ikhousiak. Behin komentietarik kanpo ezari tie, bena horregatik bazen lehen bezañbat, eta behar bada haboro, ezpeitzen segur haier atse egiteko. Ikhoustez kanpouan ezartiak etziala hounik, asmatu die bere gisako legarbat. Legar haren araou esparantcha die denbora llaburren burian ez tukiela hountzarzunik haboro koungregazionek, legarretan eman beharko dutukielakoz, eta azkenian gosiak hilen tiala. Hori ere, beste legiak bezala, zuzenaren eta

doiaren aitzi. Eztaite sinhets, eta halere deus egiagorik, galthatu diela baizik koungregazionebatetako aourhider *ehun eta zorzi libera eta hirour zantima* haitarik baten hilzetik arrajiten zeren ohe tcharbatentako eta ohe houra estimaturik zen *hogei sos!* Halaz goberniak kongregazioner bertan ebatsiko deitze dutien hountarzunak oro. Eta *Réveil Basque* denak dio legar hori eztela bidegaberik. Berak behar balu phakhatu, bestelakorik erran liro araouz.


Alemania higanaoutak emaiten deiku etsenplubat ahalkez hourt erazi behar lukiana Frantzia bezalako herri katolikobatetako gobernia. Han katoliko direnak majoria ez ukhenik ere, igaran erazi tie egiazko Erreligionaren hounetan diren lege elibat. Han aphezgeiak solthu soldadogouatik; han, eskola katolikouak, gobernu higanaoutak laguntzen tiana; han fraide eta serorak idoki zeitzten komentietara arrajinik, eta lehen zutien hountarzunez berriz jabeturik.

Arera hortara heltu badira katolikouak gobernu higanaoutareki, elizate, heltubada, nekiago hainbesteren egitia Frantzian. Beharda hatik aithortu Allemaniako aphez eta aphezkupiak Frantziakouak beno hobeki burhagertu direla Erreligionaren etsaier buhurtzeko. Lehen lehenik, *Posen* hiriko archebiskoua koundenatuk izan bost ehun liberaen isuniala (amanda), 1873<sup>an</sup>, agorrilako 20<sup>an</sup>, eta hori Erreligionaren althia etcheki zialakoz. Laou hilabetetan barnen, bazian ehun mila liberaen isunez (edo amandaz) gañetik, bere phakia idokirik; etchenko gaizak oro bahiturik; behin bi ourtheren presou, gero hirourena, 1874<sup>an</sup>, aphirilako 25<sup>an</sup>. Gaztelu batetan zerraturik bi ourthe igaran zutian phenarik garratzenetan.


Ber aphezkuperriko hanitch aphez bere aphezkupia bezala presountegietarat igorririk, bai eta ere bi aphezkupu laguntzaliak bata bederatzu hilabeteren, bestia hamazortziren. Arte hartan khristiek bere egin ahalaren arau artha hartu gaztelietan zirenez, eta zutien hountar-

zunetarik nasaiki eman bere artzañ phakurik gabe zirener. Azkenekoz gobernia zeditu, eta orai Erreligiona errespetaturik da Alemanian.

Balinbaguntu goure Herrian holako potro diren aphezkupiak, goberniak orai danik eretchekilro Erreligionari eta aphezgouari zor dereitzenak eta ezlitiro hañ gaichki erabil. Khristier da Jinkouaren othoitzia iger ditzagun artzañ Alemaniako haien ariatik. Zouñ dira egunko egunian othoitz egiten dienik bere erretorren, beste aphezen, bere aphezkupiaren? Eta hatik lehen lehen eginbidetarik da, hala noula aita eta amentako othoitz egitia; ber zuzenez egin behar lizate goure arimen aita Jinko hounak ezari dutianentako. Jinkouak entzunen tu goure othoitzak, ezta dudarik, eta emanen dereiku bere gogoko apheztarik.



### USKALDUN APHEZER EMAN OUHOUREZ



**G**OURE ungarunetako gaseta gorriek agertu dien ezin aiphatuzko fedegabiak bortchatzen gutu berriz mintzatzen Aita Saintiak Uskal Herriko laour aphezi eman dutian ouhourez. Gaizak hañ dira gaichki gogaturik eta adi erazirik izan, noun uduñ beitzaiuku houn datekiala bi hitzez egia zer den erraitia.

Badakigu orok 1889<sup>e</sup>ko bozketarik landan, Baiounako aphezkuperriko hogei eta hamabost aphezi phakia idoki ziala goberniak, zuzenik batere gabe, eta politika güti edo hanitch egin zielakouan. Prefetak egin zian ahala oro bere parropietarik iger erazteko goberniaren begietan ogendant handienak zirenak. Bena bikari gehienek, ordian aitzindari zirenak, aphezkupia hil berribeitzen, eta berirrik eztzelakoz orano, eztzutien nahi ukhen, prefetaren othoi eta mehatchiengatik, gaichki

erabili aphez hourak : ezi ororen burian eztiren bere eginbider jarraiki baizik, Aita Saintiaren erakouspenen arauouera, bere parropiantak argituz kountzentziaz bozketa zutien eginbidetan gañen.

Hantik laster izentaturik izan aphezkupu berria. Nahiz utzul erazi bere aphezer zuzenik gabe idoki phakia, edo behar bada, bahikunte zerbait emanik zelakoz goberniari, izentaturik izateko, prefetareki hitzkatu egiteko horrez. Uduritu zeion phakiaren utzultziaren ordari, begietan goberniak hartu zutian aphez hetarik zounbaitez, prefetak galthatia egin zirouala.

Berak entzun gabe,igorri zeren parropiaz khanbiatzeko mania, Phentekoste aitzineko astian, eta behar ziren laour egunen buruko helturik izan, bakhoitza bere parropia berrialat.

Hañ zorrozki erabili aphezak lehiatu ziren maniari azpikotzera : bena aphezkupiari ez buhurturik ere, eztien bazterrian ezari Elizak bakhoitzari dereikon zuzenbat, Aita Saintiari hersatzekoua, manubaten haoutserazteko, berheziki nouiz eta manu hora emanik beita goberniareki batian, edo haren aholkuz.

Horik oro agitu 1890<sup>eko</sup> uztaila urhentzian. Behar ziren izkiribaiak igor, eta egitekoua erazirik aphezek Erroumako khortiaren aitzinian, Baiounako jaoun aphezkupiari behartu zeion abokatubat hartu, eta hantik egin zeitzen galthouer ihardetsi. Gobernia, jakinturik zer zabilan (eztakigu nourtzaz eta noula,) aphezkupiaren althe jarri, eta burhagertu egitekouan.

Noula gaizak chuchenian eta doian jouaitez, aphezek behar beitzukien bere ohiko herrietarat utzuli, beldur izateko zen holaz aharrabat phitz ledin Errromako khortiaren eta Errepublikako Goberniaren artian, nahiz eta haou, den gutienik ere zeraoukon egiteko batetan sartru zen. Ordian, sortzez Baiounako zen aphezkupubat, Erroumatik igorririk izan, bakiaren ezartera ahal bazen.

Mania bazian, othoitze, Aita Saintiaren izenian,

lehenik aphezak, beren galthouaren bazterrialat eiztez; gero Jaoun aphezkupia, aphez haier, bere zuzenaren bazterrialat ezartiaren ordari, zerbait ouhourezko kargu eman lizen. Aphezek bai erran Aita Saintiak galthatiari, gogouan erabili ere gabe zerbait ordaritan bazukienez. Eztirogu aski gora eduki aphez hoiен Aita Saintiaren galthobati jarraikitze lehiatia : ezkinatекian khechu hatik, hartu bidian aitzina jouan balia. — Jaoun aphezkupiak aldiz, ez nahiz ikhousi *Jaoun Puyol* etan egitekouaren bardintzera jinik zen gizounbat, eztutian eman galthatu zeitzen ouhourezko kargiak.

Ordian Aita Saintiak beraourtarikigorri aphezetarik laouri, dakitzagun ouhourezko señaliak. Eta, arauoz, Jaoun Aphezkupiak eztutialakoz berak eman nahi, Aita Saintiak beste nourbaitez hel erazi zuzenduner. Haiiek aldiz, ouhouriak ukhen bezañ sarri, eginbidia zien bezala, jakin erazi Jaoun Aphezkupiari.

Mar, mar, baratu gobernia ; gero, mendekatzeko, gabetu du Jaoun Pujol *St-Louis des Français* den Eli-zako gehiengouatik, kargu hori bere eskupeko beitu; bestalde, nahi ukhendu, bethi zuzenik gabe, aphezer ouhourezko ekhargallien agertzeko zuzena idoki.

Horra egia, *l'Affaire de Bayonne* zen egitekouan gañen.



## LABORARIER



### I. — Uztak 1891<sup>an.</sup>

1890 den ourthia laborarien izan bazen ere arteko, eztaite halaber erran 1891 denaz. Ourthe haou laborantcharentako date ezin egarizko esprabubat, eta eizten dian ordeñiak eztu deus hounik : daigunekolehen zortzi-

hilabetetan miseria beltz eta beharrune handirik egari beharko dela.

Aourthenko ogiek hatik abio ederra zien : orotan aziker burutu ziren urrieta eta azarouan, denbora eder eta hounareki, eta alhorrok berdatzen hasirik ziren, noiz eta, azarouaren 27<sup>an</sup>, bat batetan jinbeitzen izotz ezinago borthitzbat eta izoztiak iraň ourtharila azkeniala drano. Gaitzaren handiago erazteko, izotze hen aitzinetik ezpeitzian elhurrik egin,ogi sorthu berriak ez buhurtu ahal izan hotz idor bat batetan jinhai, eta habrouak galdu, berheziki gune aphas eta hoursietan. Laborari hanitcheck azi galdeien ordari ereň zutien, batek bedatseko ogi. Ogi muta hora ezpeita larrazkenekoa bezaň houn, ezta Frantzian halako guti baizik ereiten; ere hazia bertan khariotu heñetik kanpo. Bestek aldiz ereň edo garagar,edo sekale, eta haborouek olho.

Halerik ere uzta aski houn zatekian maiatzeko hilabetian eta oundokouan haroua althe izan baliz,ogi buriaren egiteko eta liliaren begiratzeko ; bena negiak iraň ordartio, eta uztaila agorriletan ezaski bero egin aitzineko hotzek egin gaitzaren tchipi erazteko : ezi Frantziako hirour phartetarik bietan ogi guti eraiki die eta dena herdollak janik, Hegoualteko eretzian, haro hounak laguntu tialakoz izan da ogi uzta hoberik.

*L'Echo agricole* eta *le Bulletin des halles*, laborantchaz mintzo diren bi gazetek, eman tie, usatu bezala beren estimu hullanak, 1891<sup>an</sup> eraiki uzten gaňen; hounazagut erazten tien chisru tristiak: 75 miliou eta 54 mila zaku ogi, 75 kilo phezukato, bata beste, ezpeitiroie eman 42 miliou kilo irin eta 50 miliou kilo ogi baizik.

Khountu hortarik ehida ikhoustia ogi ourthe arteta-kobatetara heltzeko ments dela aourthen: bihitau 34 miliou zaku; phezutan, 27 miliou kintale; 20 miliou kilo irin, eta 26 miliou ogi erre. Uzta ezta osoki houn izan ihoun ere; houn laour departamentuetan baizik; azki houn hamabostetan; arteko hogeitaseietan (gouria hetarik); gaichto berrogeitabatetan.

Erran behar da goberniak eman chifriak eztirela eman tugun horik uduri. *Journal officiel* denak dio ogi uzta heltzen dela 82 miliou zakutara hullan, phezatzenbeitira, bata beste, 76 kilo igaranitcherik. Liferentzia ez handi izana gatik, erran daite chifru horien arteko izan dela ogi uzta.

Eropa orotan bazen 78 miliou zaku ogi igaran ourthian beno gutiago, eta ez eskaz den hori bardinturen, ez igaran ourthian berheziek, ez eta Amerikatik igorriko tienek. Ogi eskaz hori hanbatenaz ere, da deithoragarriago noun Eropa guzian ezpeitie eraiki 133 miliou sekale zaku usatu beno gutiago.

Olhouak aldiz, haroua ogiak beno althiago beitzian hountzeko, eman du bihi eta lasto usatiaz hanitchez haboro; Frantzian garagarrak eta sekaliak arteko izan dira, eta, ogi belzak arratserriko altian, arthouak hegoualtian, eta gaztañak Frantzia erdian, eman die uzta houñik. Lur sagarrer eritarzuna lothu da agorrila azkenialat habrouetan, eta, aousarki eraiki badie halarik ere, beldur izateko da, eztiratuala kalitatez net houn eta nekez begiratuko tiela.

Horra 1891eko ogi uzta tcharraren berriak, eta ments handi horri bestetarik heltzeako bide eskazak.

Sorhouek, bata beste, belhar guti eman die; euri hanitch izan den gunetan bazen arradall hanitch eta eder, bena beste zounbaitetan, idorte egin dialakoz eztie kasisik batere arradallik ukhen.

Ziberouan ogia lilitan ountsa jouan zen, phuntu harthan izan ziren egunaldi ederrer esker, bena hanitchto gunetan bihia chehe baratu, ezpeita hazitu, oundoko idortia zelakouan. Uzta igaran ourthian beno tchipiago; halaber euriak eztirelakoz jin behar zenian, arthoua ere ez aski hazi, eta igaran ourthian beno gutiago bada.

Hitzbat orai mahastiez eta zuhaintze frutadunez.

Igaran neguko izotz borthitzegiek eihart erazi tie zuhaintze lanhare *pépinières* deitzen direnetakouak, baratz ze ekhoitzekouak eta ourhetako aihen gaztiak. Sagar-

ardou egiten dien bazterretan, bi ourthez peko sagartze gaztiak oro kasik eihartu: bestalde haro gaitzari buhurtu direnek eztie emanen uzta herenbat beno haboro. Ourthez tcharra arren sagar ardou egilen.

Mahastier bere hobeneko jatzarri zeitze usatu bezala, bi eritarzun, uztailan berheziki, *phyloxera* dena eta mil-dioua. Mahatsa nekez hountu, hanitch berant orotan, zounbait gunetan batere orano eta ezeginen ere, utchura. Hatik aski bada; eta hountu den oratan badukie ardou errekolitta hounbat, bena kalitatez igaran ourthekouaren petik datekiana.

Aourthen agertu da Ziberouan, bai eta Bache Nabaren mahatsaren etsai berribat: hora da har chouri tchipabat. Harek hounki mouhariak oro hirotzen, eta hirodura ountsatto hedatu da hanitch morkhotan.

Arramaiatzeko haro hotzak gal erazi tu, goure herrian, sagartzetan agertu liliak, eta etzen mentsik; ezta mersiketarik kanpo, kasik batere ekhoitzerik izan.

Zer erakouspen idoki beharda uzten gañen eman dutugun berri hoiez? Behar dela egin ahala egin eta lothu sekula beno haboro ogi hanitchen ereitera ezpadugu ik-housi nahi gosete gorria Frantzian, eta eztela behatu behar *libre-échangistes* direnek aspaldi hountan arrapikatzen deizkien aholkier. Erraiten deikie goure herrietan ez ereñik ere ogirik, atze herrietarik, eta Amerikatik berheziki, ogiz gaintika, gihaourk eraiki behar duguna beno merkiago, eizten bada bihia kanpotik Frantzian sartzera thallarik phaka erazi gabe, jinen dela.

Gihaourk eraikiez baizik gosetia gunuke aourthen berian, 1890 ourthia gaichto izan baliz; ezi beren beno haboro ogi egiten dien erresoumek eztie aski eraiki ogia eskaz den erresoumentako, eta hetarik da Frantzia.

Mintza gitian orai laborantchari dagon berri handibatez, emanen duguna ahal bezan klarki. Diala hogeihamar ourtheren ungarunia, goure goberniak egin zutian aizoko erresoumeki tratu elibat (*traités de commerce*) eta

hitzartu Frantziatik jalkhi, edo han sarthu behar ziren kabale eta salkin bakhoitzaren gañen ezarteko phetchak. Noula tratu hourak goure beno althiago eta hobebeit-ziren atzekouentako, eta haien iraipena urhentzekoua beita daigun ourtharila azkenian, goure deputatiek erouan die hirour hilabete, aitzina phaka erazi behar diratien phetchen izartzen. Esparantcha izateko da senadoretegian eztutielatchipituko deputatiek ezari phetcha eskazak, eta haien lanari bai erranen diela.

Phetcha berriek eztie emaiten hullanik ere laborantchari merechi eta behar lukian hounkia oro. Frantziako laborarien botigouak (*société des Agriculteurs de France*) adelatu zian eta hel erazi deputatier laborantchari daudienetan ganeko egingeibat, hartan ezagut erazten beitzian zounbat phetcha, laborarien hounetan aritzeko, phaka erazi beharko zatekian Frantzian sartzen den salkin bakhoitzari. Botigoua harek galthatzen zian bardinetik ari litian, eta behar zela phaka erazi atzetik sartzen ziren gaiza guzier phetchabat, gaiza haiiek Frantzian berian phakatzen dutien thallak bezañ gora. Phetcha berriek heltu behar lukie ehun libera bakhoitzaren hogeitabost liberatara, zeren eta Frantzian laborantchako errebeniouen laourdema thallen phakutan jouaiten beita.

Deputatiek eztie eman laborarier doi zatekian gaiza hori. Ezi hek ezari phetchak, e hunaren hogeita bost izan ordutan, hamar edo hamabostetara gorennetik heltzen dira. Eta orano phetcharik batere phaza erazi gabe eitziko tie sartzera Frantzian ilhiak, zetak, zihouak, larru phintiak edo phintzekouak; erran nahi beita laborarien mouzkinen bostgerren phartiaren galtzeten ari izan direla deputatiak, erran tugun salkin lantzen dutienen ekhoizpenetan. Zuzen doi horren laborarier ez emaiteko legiari bai erran dien deputatiek (*hirourez bestiak, oro gorri ziren*) alegatzen zien hortarik ari behar ziela lankhia handi elibaten ez erortera eizteko, eta atzekoueki egiten den komerziouaren hederaezteko.

Ehunetan behar bada borogaturik izan da horren aitzia: ezi lankhia handiek badie arrimu hounbat atzetik sartzen diren phasta obratietan gañeko phetchetan, eta phetcha hourak ez aphalenetarik, heltzen beitira balia-ren laourdeniala edo erditara, edo, zoun phasta obrarentako, balia bardintzen beitie.

Bestalde ilhe eta beste phastetan gañen phetcharik ezari nahi etziener erraiten zien orano, lankhiak laguntuko zutiela utzultzez phastaren atzetik sartzeko phakatu phetchak, nouiz eta phasta hora heben obraturik atzialat igorriren beitzien; eztzen doian egoiteko beste biderik: halerik ere majoria kountre izan.

Horra noula lankhia handietako naousier heltzekotan, deputatiengarriak nahiago ukhen tian eitzi laborariak bazterrialat, eta laborantchako hogeibat mouzkin bide galerazi. Egia da hitzaman diala laborarier galzepenaren ordari, prima, eskolategi, etc., etc. Ikhousiko geroerremediouak gaitzagoithuren dianez, eta eztiraluzaz egonen laborariak jakin gabe illusionez enganatu tiela.

Laour ehun deputatuk botzak eman tie ilhiaren eta gañelatiko phasten phetcharik phakatu gabe Frantzian sartzera eizteko; ezta izan ehun eta berrogeitahamarbat baizik phetchen ezartiaren althe. Bihiaz eta kabaletzaz aiphua, baziren hirour ehun phetchen althe eta 250 kountre.

Bi bozka horietan deputatu chouriek eman tie botzak phetchen ezarteko, laborarien laguntzia gatik. Haier lehen bozkan (bihia eta kabaletakouan) juntatu dira ehunbat deputatu gorri. Bigerrenian bi alde ziren chouriak eta gorriak, chouriak bethi bezala laborantcha-ren althe, phetchen ezari nahiz, bestiak aidiz kountre.

Bi alde jarri balia lehen bozkan chouriak eta gorriak, bigerrenian egin dien bezala, aourthen danik Frantziako laborariekin bere mouzkinak ez deusetan saldu beharko zutukien eta chaku galdurik ziratekian.

Ehi da ikhoustia noun diren laborarien egiazko adichkiadiak.

## II. — Hountkallu berriez.

Badu aspaldi hountkallu berri batzuz, frantzesez *engrais chimiques* deitzen direnez, jentia mintzo dela. Bena, azken denbora hoietaradrano, laborari handiak eta jaounak baizik eztira gudiziatu haietarik erostera. Egun, haien aiphia orotara hedaturik bada, azken basabazter herrilano, hori tratulantgouari esker eta halako egiler, hetarik saltzez bere bizia irabazi behar beitie. Tratulanek haborouetan eztie deus enthelegatzen laborantchari daouzkanetan; halarik ere, eztira baratzen arrapikatzetik laborarier : « Eros eta ezar zien lurrer hountkallu berrietarik nahi baduzie uzta ederrik eraiki. » Tratulanten elhe ederrer eta deus eztakienen hitzemaner phara dagotzan lohiti hanitcheak eros die eta ezari bere lurrer hountkallu berri, jakin gabetarik zer eta noula ezar, uzten arao. Halaz haborouek huts egin, aitzinetik behar bezala aholkatu eskazez, ezpeitira berri zenturatu nahi hountkallu haien egartera. Tratulanter aldiz orobaterostunek ez khaousiturik ere, saltzen zien ber, eta irabazi ederrik egin umen die.

Dudarik gabe hountkallu berriak houn dira, eta chit houn, eta aiphatzen batugu, aiphatzen tugu lohitiek eros eta ikher ditzen nahiz. Bena ber denboran gomendatuko deregut haientzak zohogiki erabiltez, eta hortako emanen dugu aholku zounbait haien egarteko chedetan gañen. Ezi hountkallu berriak deus eztakian lohitibaten eskieta uduri duizar nabelabat haour baten eskieta.

Erraiteko da eztela behar bada lehen aldean khaousitzen zer mutatako hountkallu behar den, eta noula egari behar dian, eta berritzapen orotan bezala, zohogitik aritzeko dela. Eztu hanitch denbora. Frantziako labarrien botigouan (*Société des Agriculteurs de France*), hankogehienetarik bat, hountkallu berriez mintzo zelarik, ziouala : « Ezta aski hountkallu horien noun nahi eta noula nahi lurrer ezartia : behar da aitzitik, gogozkatuz eta ikhouska ari. Ogi ereitiak edo azikak ihour-

kerek ouste beno haboro abillezia eta jakiteria deraouka. Ezta dudarik, hountkallu berriak hanitch hounki heltu zaizku. Eretze frankotan ikhertzepenetako alhorrak (champs d'expérience) begien aitzinian ezari dutie, eta laborantchako moulde berriari bazterretan lotzen dira. Bena ezta hortik erraiteko hounkallu berrien egartia noun nahi kounbeni dela, eta halaz lohitia aberastuko dela, gastia jinphidia bezañ handi bada. Bai, hanitch gizen diren lurretan 60 edo 80 kilo hountkallu berrik mouzkin eijerbat eman diroke. Bena ezar balitze lur mehe edo artekouetan, ezta dudatzeko aouherretan edo galtzetan ere egar litirokiela.

« Tratulanten eta *chimistes* direnen erranaren araua, ehi laiteke, zer nahi lurretan, 50 zaku ogien eraikitia, hountkallu berrien bidez, noun ere ezpeitaite eraik 15 zaku baizik, ourthe hobenetan. Bena ezta sinhesteko hori hala dela lur gaichtouetan, ez eta lur hounetan ere noun eztiren harouak osoki althe bilhakatzen. Lastouren herdolla, ogi liliaren ezabatzia, eta beste gaitz zoubait eztireia hor, ihoulaz ere laborariak ezpeitere buru emaiten ahal? Eta gero, hountkallu berribatetarik (*azole dianetik*) sobera ezarten bada, ogiaezinago eder abiaturako, bena den gutieneko aiziak iraouriko, eta lasto etzanak emaiten dian ogia balheiua eta nekez saltzen. Arren gogozkatzez eta ikhouska gitian ari hountkallu berrietaik ogilurrer ezarten. Ez hatik izan zohogi batere ezartialano, eta Ebanjeliouak diouan bezala : « Guziak ikhert itzak eta lehiatuki oret houn dena. »

Bada ikhertzepen (expériences) sos hanitch igorri gabe egin daitekianik. Houna lusernier sorhobat. Ithegunkal ezarten bada baranthallan edo gorotzilan hounkaillubat badukiana :

|                             |     |        |
|-----------------------------|-----|--------|
| Superphosphate à 12 p. o/o. | 120 | kilog. |
| Chlorure de potassium.....  | 40  | »      |
| Plâtre commun.....          | 120 | »      |

etahoge liberakobat khostako dena; ber sorhouan eizten badirade, han heben, gune zounbait, edo hobeki beste ithegunbat batere hountkallu berritik ezari gabe: ehi date ikhoustia zer liferentzia handia datekian denbora llaburren burian hountkallia ukhen dukian lusernatik batere ukhen eztukianiala, ez berere edertarzunian, bena orano ebakaldietan: ebakaldi baten ordari biga segurrik euriak aski usu badira.

Halaber date miñaberse ahultubati ezarten bada hountkallu berri. Diala zounbait ourthe, Peyrahouradako Syndikatak erakhari zian hountkallubat beitzian:

|                              |    |     |    |      |
|------------------------------|----|-----|----|------|
| Azote organique ammoniacal.  | 2  | edo | 3  | kilo |
| Acide phosphorique soluble.. | 6  | "   | 7  | "    |
| Potasse assimilable.....     | 12 | "   | 14 | "    |

ehunbat kilo pezu zian hountkallukal, eta khosta zena 12 libera eta 12 sos kintale handia. Liberabat hountkallu (phezutan) nounbait behar da aihen bakhotcharen, eta ezaririk ogia ereiten den bezala, edo arthouaren gisa goldiaz edo aitzurraz aihen herroken artian eginik diren ilderreka batzietan, urrieta azkenari buruz. Halaz gastia 13 libera diharuena 200 oundokal, ezourthe oroz egitekoua. Mouzkina aldiz sos igorria beno hanitchez handiago, hountkallu horrek hanitch edertzen beitu aihena eta mahats nasaiki eman erazten.

Nourk ere lur sagar hanitch ereiten beitu, harek ountsa eginen du ezartia hountkallubat gisa hountara eginik :

|                         |       |        |
|-------------------------|-------|--------|
| Nitrate de soude.....   | 200   | kilog. |
| Scories phosphoreuses . | 1,000 | "      |
| Chlorure de potassium.  | 200   | "      |

eta bi ithegun eta laourdenkal ezarteko doi dena. Ikhertu ukhen dienek hountkallu hori, igorri badie 120 libera diharu, irabazi die 386 libera igorriaz bestalde, bi ithegun eta

laourdenkal, eta ourthe bakoitz. Aldiz hountkalliak ez ezari behar bi ourthetarik baizik.

Erran tugun horietarik agerida zer ekhoizpen handi deraouzen hountkallu berrieik. Etsenplubat houn lizate oientako, bena eztaite deus segurrik erran, ogi lur orori badouenik, zeren hanitch egiten beitu lurraren kalitatiak, bai eta ere luherabiliaren barnagouak, eta aldepetiko lurraren zimentiak, bai eta ere ezari behar den ogi azi mutak.

Entzun dugu goure bi herritarrek agerterazi gei diela daigun ourthian librubat ziberutarrez, ogiaren eta arthouaren eraikitzen gañen. Libru hora erakouriko dienek ikhasiko die hartarik hanitch gaiza houn, guk armanak hountan ezar eztirogunk aski tregoua gabez.

Eta haregatik bi aholku berbera emanen tugu azikan gañen. Lehena, ogi aziaren ahalaz eder haitatzia, zeren azia ederrago eta lantharia bigourtago jiten beita eta ogi haboro emaiten.

Bigerrena, gorotzez ahal bezañ ountsa artha hartzia, eta ahalaz haien atherbian etchekitia. Mintzatu gira aitzineko armanakbatetan gorotzaren begiratziaz eta arthatziaz. Egun erranen dugu gorotzen balia emenda daitiala iraourgeier edo pallater ezartez hountkallu berri merke diren batzu. Ziberouko lurrek mentsenik diena da *phosphate* deitzen dena. Eta arren deus ehiago halako gorotzer eretchekitia beno, jouanphidiak hanitch zabaltu gabe. Askida, gorotz topouaren egitian, gorotzareki nahastia *phosphate* (edo ezurreki) erhaoustutik; edo ezartia hartarik beretik pallatari, gorotza kabalen pian delarik, barreiatzez kabalen uzkupetan : kabale bakoitzaren eta egunkal behar lizate kilobat eta erdi erhaouts. *Ezurreki* erhaoustia gorotzen egitian ezarten denian gorotza hanitch hountzen du, eta lurrek ehiago beretzen, chuchenka ezaria beno.

Hanitch ekhoizpenetako denbat da ere, gorotzetarik jalkhitzen den jusari kaparrous edo bitriol berde amiñibaten ezartia, eta jus harez goroztopouaren artetarik

ihiztatzia. Gorotzak hola erabiltez laborariekin eraiki liroie egiten dien beno ogi uzta hanitchez ederragorik. Ezurreki erhaoustiak (phosphates pulverisés) eta kaparrousak balio die bakhotchak 6 liberatarik eta zazpieter-dietara drano kintale handia.

Horik direla laboraribatek egin ditirouanak, eta ikhert, segurretik aritez eta beraourtarik. Eta daigun ourthian, gorago erran dugun bezala, agerturen beita librubat ogi eta arthouaren eraikitian gañen, han bakhoitzak edirenden tu behardien erakouspenak hountallu berrien egarteko mouldiaz.

### III. — Kounderaren galeraztiaz.

Ezta belhar gaichtouetan bakhoitzbat kounderaren bezañ nekez gal eraz daitekianik alhorretarik. Houna Mathieu Dombasle, laborari aiphatiak erakoutsi dian bidia haren gal erazteko. Gizoun jakintsu horrek dio behar dela udan alhorra utzuli, ez sobera barna, ez sobera goihera : sobera goihera elaitiala kounderaren zaña oro eraouz, eta sobera barnatik, ildouan barnen hotzaranian bara leituala eta nekez eihart.

Alhorra utzuli denetik eta amoustbat egunen burian behar dukie ildouek ountsa arhatu kounderaren lurretik berheztek. Lehen arhatze hountarik landan, hamar edo hamabost egunea irian, berriz arhaldibat lehena bezañ gothorki, eta azkenian hirourgerren arhaldibat, beste amoust egunen burian.

Haroua ekhizu eta idor agitu bada, kounderaren galduko da eztukialakoz uhen errouen eta ostouen emaiteko arterik, eta chimaltuko beitira lurran gañen. Bena haroua eurizu izan bada, erran lan hoiek beharko tie arratu.

Bada orano beste bidebat kounderaren galerazteko. Houra da negu bethian eta kharrou handibati buruz luraren utzultzia, eta arhaldi houn batez ildouen ountsa phorrokatzia, kounderaren achalialat agerterazteko. Noula kounderak beitu hourbatbihikan barnen, hour harek

kharrountatziareki lehert erazten tu bihikak, eta halaz kounderai eihartzen.

Lantharen izatia eta mutak ustudiatzen tienek dioie badela hirour kounder muta; kounder bihikaduna, kounder ildapizarra eta kounder arrastelu belhar zaña. Hirour kounder muta horik erran dugun bezala gal erazten dira alhorretarik kharrouaren edo ekhiaren bidez.



### URHENTZEKO ISTORIA EDO ERASI

---

**P**OLONIAN, zoun̄ egunez, usatzen die aberatsek bere mahañian jar erazteria bilzale behar zounbait. Vilnako bankier batek, aldibatez, bazutian hola biga barazkaiten. Praoubetarik bata bestiari aiherbeitzeron, ikhousi zian chothilkiñi bere botala lerra erazten zilhar golhare ederbat. Eztzeron enjeñu, berak egin gei beetzian ber jokia. Jiten zaio zerbait gogouala, eta mahañetik jeikitian erraiten du : « Jaouna eta anderia, zien erremestiatzeko nahi nuke egin belhagile kolpubat, ororen tchostatzeko. » Bai, bai, orok. « Arren ikhousten duzie zilhar golhare hori; ziek so, ezarten dutene botan : ikhousi duzie; bai... arren, choumla, choumla, ps! (Besouaz ungrubat laster egin) Golharia jaoun horren botalat igaran da; sogizie. » Bestiarrek berhala ikher, eta han edireiteen die. Esku zapartaz oro. Ordian aztittouak koladabat egin, eta fia, fia, kanporat.

\* \* \*

Aljeriako gerletan, Bou-Maza, goure etsai gothorrenetarik zen, ezagut erazi ere bazian. Azkenekoz Frantziako presouner erori zen; bena buria ez aphaltu behin ere. Itchasouan gainti Frantzialat jiten zelarik, oro balentria eta bere oustez jakitant zen bat, presounerari hullantzen zaio, zeliari eta itchasouari aldizka so

zelarik, sar erazten ountziko armadurak oro ziren lekhian, eta hour khiaren indarra eta estounagarria zer den aho bethez erakousten. Elhe tchapasta haier khontu handirik ez, gutiago estonamenturik.

Pheredikazalia thar, mourmouzikaz; elhe artekariari: « Zorobat duk hori. » Ordian Bou Mazak, buria gora eta kheñu ederbateki, eskuia ekhiari eta bortu gañ agertzen zen bati: « Horik ederrago ziztak; errak : hire jakintsiekgutxi egiten ahal dieia ogi bihia? Jinkoua bera duk handi! »

\* \* \*

*Haour baten elhia, egia sobera.* — Zortzi ourthetako alhabattobat, lehen komunianka egunbatez, Elizan janartora entzunik erraiten phena ziala ez ikhoustez haourren aitak ere mahañ saintian, etchera zenian ama han-diari: « Zertako arren aitek eztie egiten janartoraren mania? » — « Ahalke beitira. » — « Eta zerentako ahalke? Ez tutuzu ahalke orditzera eta hola agertzera kharriketan. »

\* \* \*

Jaounbat, sudurra gorri gorria, burduñ bidian bidajeze. Eretzian gizoun gaztebat, ez ahalkor, erraiten derona: « Jaouna, sudurra eztai zu gorritu kharrou leira mourtchatuz, ezta hala? » — « Elaz! ene gizoun maitia, areta ezne baizik eztit edan ourthebatez. » — « Ourthe orotan? » — « Bai jaouna, ourthe orotan; egia duzu unhodian nintzan ourthia zela. »

\* \* \*

Baiounako merkhatian, salzalebati nourbaitek galthatzen zeron: « Homart horik atzman berri dira? » (Homarta da eskrebiza uduri den itchas ihize gorribat, bena hanitchez handiago.) — « Ikher dirozu; zoure tchakhur buztana ezarten baderozu bati aztaparriala ». Berhala egiten du. Homartak tinkatzen, bena noula! Tchakhurra harriturik laharrokaz; homartak tinkago, tchakhurrak lasterrago. « Tchakhurra dei zazu arren, jaouna! » — « Bai bena, foutro! zuk homarta dei zazu lehenik. »

\* \* \*

Ostatian gaia igaran behar zian batek lotsa beitzen kukusouen, galthoz bazenez ohian. Ezetzez erraiten dere : « Eztuzu beldur izateko kukusouen ; oro jaten tizie chimitchek (edo purnachek). » Debrubat ziouan bere buriareki, « martchandiza horrek eztizu haboro balia ! »

\* \* \*

*Alzain Heren Sugia.*

Zouhourreko oihan bazterrian bada mendi larrebait deitzen Azale i machela, eta haren erdichetan harpe lezedunbat.

Nouzpaitz ungarune hetako artzañek kabale galtzen zien eta ez ihoun herecharik edireiten. Egun batez harrigarri zen sugia lezetik jalkhirik edatera jouaiten ikhousi zien, buria hourian eta buztana orano harpe khantian. Hatsaz beraz arresak biltzen zutian harpiala eta osorik iresten. Zer egin behar zen, othian ?

Orduna berian bazen Athagin etcheko semebat deitzen Chibalie, armadetan egonik, aphottorouen lotsa eztzena. Behar ziala jakin naousituren zenez heren sugiari, behi larrubat pholboraz betherik zaldibatetan ezarten du, zaldia elhorritzebat. Mendi hegian gainti Azalegi machela behera larria dourdoullakaz lerra erazi harpe aitziniala.

Jinko hounak eman zeron dohañian petik gora Chibalie ; igañ zaldiari iñhaziaren antzo, ibarra behera. Alzaiat buhurtu zeneko, Hangaitzeko garatian entzuten du tzintzarradabat bezala oundotik, Heren Sugia behi larria iretsirik eta pholborak su harturik, Itheko oihana behera bagastak buztan khalduz haouston karraskaz. Alzurukun gainti jo zian itchasoua eta han itho.

Chibalie Athagi, aldiz, Heren Sugiaren huchtiak eta herotsak odola hour bilharazirik, ohian sarthu eta hartzik hil.

Zaharrek dioie Heren Sugiak baziala hirour buru.



MAIATZA edo EPHAILA  
Eg. luzatzen dira oren eta laourdenez



- ⌚ l. l. 3<sup>n</sup>, arratseko 7<sup>or</sup> eta 21<sup>min</sup>
- ⌚ a.b. 11<sup>n</sup>, arratseko 11<sup>or</sup> eta 8<sup>min</sup>
- ⌚ a.l. 19<sup>n</sup>, arrastiriko 3<sup>or</sup> eta 2<sup>min</sup>
- ⌚ a.b. 26<sup>n</sup>, goizanko 5<sup>or</sup> eta 58<sup>min</sup>

ARRAMAIATZA edo EKHAINA  
Eg. luz. dira oren eta 1/4, 22<sup>a</sup> orano.



- ⌚ l. l. 2<sup>n</sup>, goizanko 10<sup>or</sup> eta 1<sup>min</sup>
- ⌚ a.b. 10<sup>n</sup>, arrast. or. 1 eta 42<sup>min</sup>
- ⌚ a.l. 17<sup>n</sup>, arratseko, 9<sup>or</sup> eta 10<sup>min</sup>
- ⌚ a.b. 24<sup>n</sup>, arrastiriko 2<sup>or</sup> eta 16<sup>min</sup>

|                   |                        |                     |                      |
|-------------------|------------------------|---------------------|----------------------|
| 1 <b>Igante.</b>  | J. Filipe et. Jak. Ap. | 1 Astizken.         | s. Klair.            |
| 2 Astelehen.      | s. Atanasio.           | 2 Ostegun.          | s. Potin.            |
| 3 Asteharte.      | Da KHURUTZE            | 3 Ostirale.         | sa Klotilda.         |
| 4 Astizken.       | sa Monika.             | 4 Nesk. Barour.     | s. Frantzes Ka.      |
| 5 Ostegun.        | s. Pio V.              | 5 <b>Igante.</b>    | PHENTEKOSTE.         |
| 6 Ostirale.       | J. Johane, Eb. B.L.    | 6 Astelehen.        | s. Norbert.          |
| 7 Neskanegun.     | s. Stanislao.          | 7 Asteharte.        | s. Majan.            |
| 8 <b>Igante.</b>  | J. Migel. agert.       | 8 Astiz. IV Th.     | s. Medart.           |
| 9 Astelehen.      | s. Gregori, na.        | 9 Ostegun.          | sa Pelajia.          |
| 10 Asteharte.     | s. Antonin.            | 10 Ostir. IV Th.    | sa Margarita.        |
| 11 Astizken.      | s. Oriens.             | 11 Nesk. IV Th.     | J. BARNABE, ap.      |
| 12 Ostegun.       | s. Nere eta Akil.      | 12 <b>Igante.</b> 1 | TRINITATE.           |
| 13 Ostirale.      | s. Jenio.              | 13 Astelehen.       | s. Antoni Pad.       |
| 14 Neskanegun.    | Johane Sala d.         | 14 Asteharte.       | s. Basila.           |
| 15 <b>Igante.</b> | s. Eutrope.            | 15 Astizken.        | sa Jermenai.         |
| 16 Astelehen.     | s. Johane Nep.         | 16 Ostegun.         | BESTABERRI.          |
| 17 Asteharte.     | s. Paskal.             | 17 Ostirale.        | s. Avit.             |
| 18 Astizken.      | s. Venanzio.           | 18 Neskanegun.      | sa Marina.           |
| 19 Ostegun.       | sa Pudenziana.         | 19 <b>Igante.</b> 2 | s. Jervasi eta Prot. |
| 20 Ostirale.      | s. Bernardin S.        | 20 Astelehen.       | s. Juliena Falk.     |
| 21 Neskanegun.    | s. Petiri Zel.         | 21 Asteharte.       | s. Louis Gonz.       |
| 22 <b>Igante.</b> | sa Kiteria.            | 22 Astizken.        | s. Paulin.           |
| 23 Astel. Rogaz.  | s. Ubalde.             | 23 Ostegun.         | s. Eusebio.          |
| 24 Asteh. Rogaz.  | A. B. Lagunzalia.      | 24 Ostirale.        | J. JOHANE BA.        |
| 25 Astiz. Rogaz.  | s. Gregori VII.        | 25 Neskanegun.      | sa Eurosia.          |
| 26 Ostegun.       | SALBATORE              | 26 <b>Igante.</b> 3 | J. BIHOTZ SAK.       |
| 27 Ostirale.      | sa M. Madal. P.        | 27 Astelehen.       | s. Prosper.          |
| 28 Neskanegun.    | s. Agosti.             | 28 Asteharte.       | s. Irene.            |
| 29 <b>Igante.</b> | s. Garzia.             | 29 Astizken.        | J. PHETIRI eta P.    |
| 30 Astelehen.     | s. Felis.              | 30 Ostegun.         | J. Phauler. orh.     |
| 31 Asteharte.     | sa Anjela.             |                     |                      |

## UZTAILA

Egunak llaburten dira oren 1ez.



- ⌚ l. l. 2<sup>n</sup>, goizanko 2<sup>or</sup> eta 2<sup>2m</sup>.
- ⌚ a. b. 10<sup>n</sup>, goiz. or 1 eta 53<sup>m</sup>.
- ⌚ a. l. 17<sup>n</sup>, goiz. or 1 eta 57<sup>m</sup>.
- ⌚ a. b. 23<sup>n</sup>, aratsekoi 11<sup>or</sup> eta 40<sup>m</sup>.
- ⌚ l. l. 31<sup>n</sup>, arratsekoi 7<sup>or</sup> eta 54<sup>m</sup>.

## AGORRILA

Eg. llaburten dira oren 1 eta erdiz



- ⌚ a. b. 8<sup>n</sup>, eguerdi eta 7<sup>m</sup>.
- ⌚ a. l. 15<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 47<sup>m</sup>.
- ⌚ a. b. 22<sup>n</sup>, goizanko 11<sup>or</sup> eta 8<sup>m</sup>.
- ⌚ l. l. 30<sup>n</sup>, arastir. or 1 eta 38<sup>m</sup>.

- |                     |                      |
|---------------------|----------------------|
| 1 Ostirale.         | s. Tierri.           |
| 2 Neskanegun.       | A. B. BISITAZ.       |
| <b>3 Igante.</b> 4  | J.K. ODOL PR.        |
| 4 Astelehen.        | s. Leon II.          |
| 5 Asteharte.        | s. Zirile & Met.     |
| 6 Astizken.         | s. Norbert.          |
| 7 Ostegun.          | s. Marzial.          |
| 8 Ostirale.         | sa Elisabet,         |
| 9 Neskanegun.       | sa Beronika.         |
| <b>10 Igante.</b> 5 | Zazpi anaie m.       |
| 11 Astelehen.       | s. Pio.              |
| 12 Asteharte.       | J. Johane Galb.      |
| 13 Astizken.        | s. Anaklet.          |
| 14 Ostegun.         | s. Bonaventure       |
| 15 Ostirale.        | s. Johane Maj.       |
| 16 Neskanegun.      | A.D.M. KARM.         |
| <b>17 Igante.</b> 6 | s. Aletsis.          |
| 18 Astelehen.       | s. Kamille.          |
| 19 Asteharte.       | s. Rizente Paulo.    |
| 20 Astizken.        | s. Filibert.         |
| 21 Ostegun.         | sa Pratseda.         |
| 22 Ostirale.        | sa Maria Maid.       |
| 23 Neskanegun.      | s. Apolinari.        |
| <b>24 Igante.</b> 7 | s. Henrik.           |
| 25 Astelehen.       | J. JAKOBE, ap.       |
| 26 Asteharte.       | sa Aña.              |
| 27 Astizken.        | s. Galatori.         |
| 28 Ostegun.         | s. Nazari eta Zeize. |
| 29 Ostirale.        | sa Marta.            |
| 30 Neskanegun.      | s. Abdon.            |
| <b>31 Igante.</b> 8 | s. Inazio Loyola.    |

- |                      |                     |
|----------------------|---------------------|
| 1 Astelehen.         | J. Petiri katietan. |
| 2 Asteharte.         | s. Alfonzo Lig.     |
| 3 Astizken.          | J. Esteber. edir.   |
| 4 Ostegun.           | s. Dominiche.       |
| 5 Ostirale.          | A.D.M. Elhur.       |
| 6 Neskanegun.        | J. K. Transfig.     |
| <b>7 Igante.</b> 9   | s. Kajetan.         |
| 8 Astelehen.         | s. Ziriako.         |
| 9 Asteharte.         | s. Jermen.          |
| 10 Astizken.         | s. Laurentz, m.     |
| 11 Ostegun.          | s. Tiburze.         |
| 12 Ostirale.         | sa Klara.           |
| 13 Neskanegun.       | sa Radegonda.       |
| <b>14 Igante.</b> 10 | s. Euzebi.          |
| 15 Astelehen.        | A.D.M. MARIA.       |
| 16 Asteharte.        | s. Rok.             |
| 17 Astizken.         | sa Emilia.          |
| 18 Ostegun.          | sa Elena.           |
| 19 Ostirale.         | sa Filomena.        |
| 20 Neskanegun.       | s. Bernat.          |
| <b>21 Igante.</b> 11 | s. Julien, Lesk.    |
| 22 Astelehen.        | s. Ipolita.         |
| 23 Asteharte.        | s. Filipe Ben.      |
| 24 Astizken.         | J. BARTTOL., a.     |
| 25 Ostegun.          | s. Louis, erreg.    |
| 26 Ostirale.         | s. Filibert.        |
| 27 Neskanegun.       | s. Jusef Kal.       |
| <b>28 Igante.</b> 12 | A. B. Bihotz S.     |
| 29 Astelehen.        | J. Joh. lephom.     |
| 30 Asteharte.        | sa Rosa Lima.       |
| 31 Astizken.         | s. Remoun N.        |

BURUILA edo SETEMER

Eg. llaburtzen dira or. eta 3/4 ez.



- ⌚ a. b. 6<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup> eta 17<sup>min</sup>.
- ⌚ a. l. 13<sup>n</sup>, eguerdi eta 59<sup>min</sup>.
- ⌚ a. b. 21<sup>n</sup>, goizanko 0<sup>r</sup> eta 26<sup>min</sup>.
- ⌚ l. l. 29<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>cr</sup> eta 29<sup>min</sup>.

URRIETA

Eg. llaburtzen dira oren eta erdiz.



- ⌚ a. b. 6<sup>n</sup>, goisanko 6<sup>or</sup> eta 21<sup>min</sup>.
- ⌚ a. l. 12<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup> eta 47<sup>min</sup>.
- ⌚ a. b. 20<sup>n</sup>, arratseko 6<sup>or</sup> eta 33<sup>min</sup>.
- ⌚ l. l. 28<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup> eta 36<sup>min</sup>.

|                   |                         |                |                       |
|-------------------|-------------------------|----------------|-----------------------|
| 1 Ostegun.        | s. Bizente.             | 1 Neskanegun.  | s. Remi.              |
| 2 Ostirale        | A. M. Antoni hial.      | 2 Igante. 17   | ARRUS. BESTA.         |
| 3 Neskanegun.     | sa Franzesa Chant.      | 3 Astelehen.   | Ainguru Begi.         |
| 4 Igante. 13      | s. Lizier.              | 4 Asteharte.   | s. Franzes. As.       |
| 5 Astelehen.      | s. Taurin.              | 5 Astizken.    | s. Venzeslaz.         |
| 6 Asteharte.      | s. Estebe, erreg.       | 6 Ostegun.     | s. Bruno.             |
| 7 Astizken.       | sa Rena.                | 7 Ostirale.    | sa Fide.              |
| 8 Ostegun.        | A.B. SORTZIA.           | 8 Neskanegun.  | sa Birjita.           |
| 9 Ostirale.       | s. Laurenn J.           | 9 Igante. 18   | A.B. Amatarz.         |
| 10 Neskanegun.    | s. Nikolas T.           | 10 Astelehen.  | s. Frantzes Bor.      |
| 11 Igante. 14     | A. B. <i>Zen Saint.</i> | 11 Asteharte.  | sa Sabino.            |
| 12 Astelehen.     | s. Gi.                  | 12 Astizken.   | sa Domnina.           |
| 13 Asteharte.     | sa Eugenia.             | 13 Ostegun.    | s. Edouar.            |
| 14 Astizken.      | Dna <i>Khurutze.</i>    | 14 Ostirale.   | s. Kalista.           |
| 15 Ostegun.       | s. Nikomede.            | 15 Neskanegun. | sa Teresa.            |
| 16 Ostirale.      | s. Ziprien.             | 16 Igante. 19  | A.B. Garbitarz.       |
| 17 Neskanegun.    | s. Franz. zaur.         | 17 Astelehen.  | s. Edvije.            |
| 18 Igante. 15     | A. B. <i>Dolorati.</i>  | 18 Asteharte.  | J. LUK Ebanj.         |
| 19 Astelehen.     | s. Janvier.             | 19 Astizken.   | s. Grat, Olor.        |
| 20 Asteharte.     | s. Eustache.            | 20 Ostegun.    | s. Johane K.          |
| 21 Astizk. IV Th. | J. MATHIU, Eb.          | 21 Ostirale.   | sa Ursula.            |
| 22 Ostegun.       | s. Maur.                | 22 Neskanegun. | s. Phetiri Alk.       |
| 23 Ostir. IV Th.  | sa Tekla.               | 23 Igante. 20  | A. B. Patron.         |
| 24 Nesk. IV Th.   | A. B. Librazalia.       | 24 Astelehen.  | s. Rafael, ark.       |
| 25 Igante. 16     | s. Austinde.            | 25 Asteharte.  | s. Krespin.           |
| 26 Astelehen.     | s. Tomas Vill.          | 26 Astizken.   | ARREROSLIA.           |
| 27 Asteharte.     | s. Kosme eta Dam.       | 27 Ostegun.    | s. Fronton.           |
| 28 Astizken.      | s. Fauste.              | 28 Ostirale.   | J. Sim. eta Jude, ap. |
| 29 Ostegun.       | J. MIGEL, ARK.          | 29 Neskanegun. | sa Eusebia.           |
| 30 Ostirale.      | s. Jeronimo.            | 30 Igante. 21  | Errelilikia sk.       |
|                   |                         | 31 Astelehen.  | s. Zirizio.           |



## AZAROUA

Egunak llaburten dira orenez.



- ⌚ a. b. 4<sup>n</sup>, arrastiriko 3<sup>or</sup> eta 59<sup>m</sup>
- ⌚ a. l. 11<sup>n</sup>, goizanko 10<sup>or</sup> eta 11<sup>m</sup>
- ⌚ a. b. 19<sup>n</sup>, arrastiriko 1<sup>or</sup> eta 28<sup>m</sup>
- ⌚ l. l. 27<sup>n</sup>, goizanko 10<sup>or</sup> eta 37<sup>m</sup>

## ABENTIA edo NEGILA

Eg. llaburten dira 27 min., 22<sup>no</sup>.



- ⌚ a. b. 4<sup>n</sup>, goizanko 2<sup>or</sup> eta 27<sup>m</sup>
- ⌚ a. l. 11<sup>n</sup>, goizanko 2<sup>or</sup> eta 39<sup>m</sup>
- ⌚ a. b. 19<sup>n</sup>, goizanko 8<sup>or</sup> eta 22<sup>m</sup>
- ⌚ l. l. 26<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup> eta 32<sup>m</sup>

|                |                           |                               |                           |
|----------------|---------------------------|-------------------------------|---------------------------|
| 1 Asteharte.   | DONISANTORE.              | 1 Ostegun.                    | s. Eloi.                  |
| 2 Astizken.    | Purg. Arimak.             | 2 Ostirale.                   | s. Bibiana.               |
| 3 Ostegun.     | s. Sebero.                | 3 Neskanegun.                 | s. Franzes Xab.           |
| 4 Ostirale.    | s. Charles Bor.           | 4 Ig. Abent. 2 <sup>a</sup> . | s. Barbara.               |
| 5 Neskanegun.  | s. Zakaria.               | 5 Astelehen.                  | s. Sabas.                 |
| 6 Igante. 22   | s. Leonart.               | 6 Asteharte.                  | s. Nikolas.               |
| 7 Astelehen.   | s. Florent.               | 7 Astizken.                   | s. Anbrosi.               |
| 8 Asteharte.   | Laou Martirak             | 8 Ostegun.                    | A. B KONZEPP.             |
| 9 Astizken.    | s. Teodoro.               | 9 Ostarale.                   | s. Jeronze.               |
| 10 Ostegun.    | s. Andreu Av.             | 10 Neskanegun.                | s. Eulalia.               |
| 11 Ostirale.   | J. MARTINE.               | 11 Igante.                    | Abentuko 3 <sup>a</sup> . |
| 12 Neskanegun. | s. Marti.                 | 12 Astelehen.                 | s. Melkiade.              |
| 13 Igante. 23  | ELIZEN SAKR.              | 13 Asteharte.                 | s. Luzia.                 |
| 14 Astelehen.  | s. Josafat.               | 14 Astiz. IV Th.              | s. Arzene.                |
| 15 Asteharte.  | s. Stanislaz K.           | 15 Ostegun.                   | s. Mismen.                |
| 16 Astizken.   | s. Edmon.                 | 16 Ostir. IV Th.              | s. Eusebio.               |
| 17 Ostegun.    | s. Gregori, Taum.         | 17 Nesk. IV Th.               | s. Lazaro.                |
| 18 Ostirale.   | s. Odon.                  | 18 Igante.                    | Abentuko 4 <sup>a</sup> . |
| 19 Neskanegun. | s. Elisabet, Hgr.         | 19 Astelehen.                 | s. Urbeñ.                 |
| 20 Igante. 24  | s. Felis, Valesi.         | 20 Asteharte.                 | s. Gazien.                |
| 21 Astelehen.  | A. B. Eskentzia           | 21 Astizken.                  | J. TOMAS, Ap.             |
| 22 Asteharte.  | s. Sesila.                | 22 Ostegun.                   | s. Flabien.               |
| 23 Astizken.   | s. Klement.               | 23 Ostirale.                  | s. Onorat.                |
| 24 Ostegun.    | s. Johane Kh.             | 24 Nesk. Barour.              | s. Delfina.               |
| 25 Ostirale.   | s. Katalina.              | 25 Igante.                    | EGUBERRI.                 |
| 26 Neskanegun. | s. Petiri, Al.            | 26 Astelehen.                 | J. EZTEBE, m.             |
| 27 Igante.     | ABENTUKO 1 <sup>a</sup> . | 27 Asteharte.                 | J. JOHANE, Eb.            |
| 28 Astelehen.  | s. Maurino.               | 28 Astizken.                  | Haur Inox.                |
| 29 Asteharte.  | s. Saturnino.             | 29 Ostegun.                   | s. Tomas, Kant.           |
| 30 Astizken.   | J. ANDREU, Ap.            | 30 Ostirale.                  | s. Mansuet.               |
|                |                           | 31 Neskanegun.                | s. Silbestre.             |

\*\*\*\*\*

### OURTHEKO HAROUAK :

|                                 |                   |
|---------------------------------|-------------------|
| BEDATSIA hasten da martchoko    | 20 <sup>an.</sup> |
| UDA hasten da arramaiatzeko     | 20 <sup>an.</sup> |
| LARRAZKENA hasten da buruilkako | 22 <sup>an.</sup> |
| NEGIA hasten da abentuko        | 21 <sup>an.</sup> |

\*\*\*\*\*

### MERKHATIAK ETA FEIRAK

MAOULEN : m., asteharte oroz ; f., buruilarren 6<sup>n</sup>. — ATHAR-RATZEN : m., astelehenez, amoustetik ; f., Phentekoste biharamenian *eta* Donisantore oundoko astelehenian. — DONI JOANE GARAZIN : m., asteleh. amous. ; f., Bazko *eta* Phentekoste ondoko astehartian. — DONA PALEUN : m., ostir., amoust. ; f., Bazko ondoko ostegunian, *eta* abentiaren 26<sup>n</sup>. — GARRUZEN : m., ostir. amoust. ; f., agorrila 1<sup>n</sup> *eta* azaroko lehen astizkenian. — IRISARIN : m., neskaneg., amoust., f., baranthall. 3<sup>n</sup> *eta* aphiril. 15<sup>n</sup>. — HAZPARNEN : m., asteh. amoust. ; f., Bazko ondoko astizk. — IZOURAN : m., asteh. amoust. — NAVARENKOSEN : m., astizk. ; f., Erramu aitzineko astizkn, *eta* abentn 8<sup>n</sup>. — ORTHEZEN : m., asteh. ; f., martchoko *eta* urrietako lehen astehn. — OLOROUN : m., ostit, *eta* asteh. ; f., maiatz. 1<sup>n</sup>; *eta* burrulln, 8<sup>n</sup>, hirour eg. — PAOUBEN : m., astel. *eta* osteg., f., Gorozum. lehen asteleh, *eta* Jaoundoni Martinez, 8 eg. — SALIESEN : m., ostegunez ; f., baranth. heren astizkn *eta* urrietaren asken ostegunian.





## Edirengia

|       |   |     |
|-------|---|-----|
| I.    | Daigun ourtheko bozkaz . . . . .                        | 129 |
| II.   | Chouri edo gorri? . . . . .                             | 133 |
| III.  | Harginbeltzak. . . . .                                  | 136 |
| IV.   | 1891 den ourthia . . . . .                              | 140 |
| V.    | Noula Erreligionia galerazi nahi dien gorriek . . . . . | 143 |
| VI.   | Uskaldun aphezer eman ouhourez . . . . .                | 145 |
| VII.  | Laborantchaz. . . . .                                   | 147 |
| 1º    | Uztak 1891an. . . . .                                   | 147 |
| 2º    | Hountkallu berriez. . . . .                             | 153 |
| 3º    | Kounderaren galeraztiaz . . . . .                       | 157 |
| VIII. | Urhentzeko khountu eta erasi . . . . .                  | 158 |

